

ZUMAIAKO SANTIAGO ETA ITZURUN HONDARTZEN EZAUGARRITZE MORFOTOPOGRAFIKOA ETA GRANULOMETRIKOA



GEOMATIKA ETA TOPOGRAFIAN INGENIARITZA GRADUA

Egilea: Itziar Yeregui Echave
Tutorea: Ane Lopetegi Galarraga



2014-2015

*Eskerrak, Ane Lopetegiri emandako
laguntzagatik, familiari jasotako
animoengatik eta gelakide izan direnei,
karrerari zehar bizitako
momentuengatik*

*ZUMAIAKO SANTIAGO ETA ITZURUN HONDARTZEN EZAUGARRITZE
MORFOTOPOGRAFIKOA ETA GRANULOMETRIKOA*

*CARACTERIZACIÓN MORFOTOPOGRAFICA Y GRANULOMÉTRICA DE LAS PLAYAS DE
SANTIAGO E ITZURUN DE ZUMAIA*

*MORPHOTOPOGRAPHIC AND GRANULOMETRIC DETERMINATION OF SANTIAGO AND
ITZURUN BEACHES IN ZUMAIA*

HITZ GAKOAK: Análisi granulometrikoa, analisi morfotopografikoa, profilaren eboluzioa, sedimentu garraioa

PALABRAS CLAVE: Análisis granulométrico, análisis morfotopografico, evolución del perfil, transporte sedimentario

KEY WORDS: Granulometric analysis, morphotopographic analysis, beach profile evolution, sediment transport

LABURPENA:

Gradu amaierako lan honetan, Zumaiako Santiago eta Itzurun hondartzetako hondar mugimendua aztertu eta laginen analisiak egin dira. Azterketa honek zazpi hilabeteko (2013 azaroa – 2014 maiatza) iraupena izan du, orotara bost neurketa topografiko eta bost aldiz laginak bildu direlarik hondartza bakoitzean. Ikerketa garaian, urteetako denborale gogorrenak egokitu dira, non hondar mugimendu handiak neurtu diren.

RESUMEN:

En este trabajo de fin de grado, se ha realizado el muestreo y análisis del movimiento de arena de las playas Santiago e Itzurun de Zumaia. El estudio ha tenido una duración de siete meses (noviembre 2013 – mayo 2014), en los cuales se han realizado cinco mediciones topográficas y cinco campañas de muestreos en cada playa. Durante este periodo, se han registrado algunos de los mayores temporales en los últimos años, debido a los cuales se han podido constatar grandes movimientos de arena.

ABSTRACT:

This dissertation consists of a study of the movement of the sand and the analysis of samples from Itzurun and Santiago beaches in Zumaia. The study lasted seven months (November 2013- May 2014), in which five topographic measurements and five sand sampling campaigns were carried out in each beach. During this period, the weather conditions were the roughest in years which resulted in outstanding sand shifts.

MEMORIAREN AURKIBIDEA

1. Sarrera	10
2. Ikerketa eremuaren kokapena	11
3. Helburuak eta metodoak	12
4. Euskal Herriko eta Zumaia inguruko klimatologia eta itsas dinamika.....	13
4.1. Klimatologia	13
4.2. Itsas dinamika	21
5. Urola ibaiaren bokaleko ezaugarriak	23
5.1. Urola ibaia	23
5.2. Urola ibaiaren bokala	24
6. Santiago eta Itzurun hondartzen ezaugarri orokorrak	36
7. Lan prozeduraren deskribapena	44
7.1. Azterketa morfotopografikoa	44
7.2. Azterketa granulometrikoa	57
8. Landa, laborategi eta bulego lanen emaitzak	65
8.1. Lehenengo kanpainaren emaitzak	65
8.2. Bigarren kanpainako emaitzak	75
8.3. Hirugarren kanpainaren emaitzak	85
8.4. Laugarren kanpainako emaitzak	95
8.5. Bosgarren kanpainaren emaitzak	105
8.6. Emaitza guztien sintesia	116

9. Eraitzen analisiak	126
10. Ondorioak	135
11. Aurrekontua	137
12. Bibliografia	139
<i>Eranskinak</i>	142
A. <i>Erpinen azalpen orriak</i>	
B. <i>Txosten meteorologikoak</i>	
C. <i>Planoak</i>	
D. <i>Argazki bilduma</i>	

TAULEN AURKIBIDEA

<i>Taula 1. Histogramaren zabaleraren mugak</i>	60
<i>Taula 2. Hautespen balioen sailkapena</i>	62
<i>Taula 3. Alborapen balioen sailkapena</i>	63
<i>Taula 4. Kurtosi balioen sailkapena</i>	64
<i>Taula 5. Itzurun hondartzan altxatutako puntuak [2013/11/01]</i>	65
<i>Taula 6. Santiago hondartzan altxatutako puntuak [2013/11/02]</i>	66
<i>Taula 7. Itzurun hondartzaren ezaugarri sedimentologikoak [2013/11/01]</i>	67
<i>Taula 8. Santiago hondartzaren ezaugarri sedimentologikoak [2013/11/02]</i>	71
<i>Taula 9. Itzurun hondartzan altxatutako puntuak [2013/12/08]</i>	75
<i>Taula 10. Santiago hondartzan altxatutako puntuak [2013/12/07]</i>	76
<i>Taula 11. Itzurun hondartzaren ezaugarri sedimentologikoak [2013/12/08]</i>	77
<i>Taula 12. Santiago hondartzaren ezaugarri sedimentologikoak [2013/12/07]</i>	81
<i>Taula 13. Itzurun hondartzan altxatutako puntuak [2014/01/17]</i>	85
<i>Taula 14. Santiago hondartzan altxatutako puntuak [2014/01/18]</i>	86
<i>Taula 15. Itzurun hondartzaren ezaugarri sedimentologikoak [2014/01/17]</i>	87
<i>Taula 16. Santiago hondartzaren ezaugarri sedimentologikoak [2014/01/18]</i>	91

Taula 17. Itzurun hondartzan altxatutako puntuak [2014/02/16]	95
Taula 18. Santiago hondartzan altxatutako puntuak [2014/02/17]	96
Taula 19. Itzurun hondartzaren ezaugarri sedimentologikoak [2014/02/21].....	97
Taula 20. Santiago hondartzaren ezaugarri sedimentologikoak [2014/02/21]	101
Taula 21. Itzurun hondartzan altxatutako puntuak [2014/05/15]	105
Taula 22. Santiago hondartzan altxatutako puntuak [2014/05/14]	106
Taula 23. Santiago hondartzan altxatutako puntuak [2014/05/14]	107
Taula 24. Itzurun hondartzaren ezaugarri sedimentologikoak [2014/05/16].....	108
Taula 25. Santiago hondartzaren ezaugarri sedimentologikoak [2014/05/16]	112
Taula 26. Itzurun hondartzaren ezaugarri sedimentologikoak [2013/11/01 – 2014/05/16]....	116
Taula 27. Santiago hondartzaren ezaugarri sedimentologikoak [2013/11/02 – 2014/05/16].	121
Taula 28. Itzurun hondartzako hondar bolumen diferentziak (bolumen kalkuluan, laukien tamaina 1 m)	128
Taula 29. Santiago hondartzako hondar bolumen diferentziak (bolumen kalkuluan, laukien tamaina 1m).....	131
Taula 30. Ingeniariaren orduko kostua	137
Taula 31. Proiektuaren gastu suntsikorrak	137
Taula 32. Proiektuaren gastu ez suntsikorrak	138
Taula 33. Proiektuaren kostu totala	138
Taula 34. Proiektuaren kostu totala (bez-a eta irabaziak barne).....	138

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

Grafikoa 1. Prezipitazioa Zarautzen (2012).....	15
Grafikoa 2. Prezipitazioa Zarautzen (2013).....	15
Grafikoa 3. Prezipitazioa Zarautzen (2014).....	15
Grafikoa 4. Tenperatura Zarautzen (2012)	16
Grafikoa 5. Tenperatura Zarautzen (2013)	16
Grafikoa 6. Tenperatura Zarautzen (2014)	17
Grafikoa 7. Haizearen abiadura Zarautzen (2012)	19

Grafikoa 8. Haizearen joera Zarautzen (2012)	19
Grafikoa 9. Haizearen joera Zarautzen (2013)	19
Grafikoa 10. Haizearen abiadura Zarautzen (2013)	19
Grafikoa 11. Haizearen joera Zarautzen (2014)	20
Grafikoa 12. Haizearen abiadura Zarautzen (2014)	20
Grafikoa 13. Azaroa (2013) eta maiatza (2014) bitarteko olatu altuera maximoak	22
Grafikoa 14. Laginen histogramak (Itzurun – shoreface – 2013/11/01).....	68
Grafikoa 15. Metatze-kurbak (Itzurun – shoreface – 2013/11/01)	68
Grafikoa 16. Laginen histogramak (Itzurun – foreshore – 2013/11/01).....	69
Grafikoa 17. Metatze-kurbak (Itzurun – foreshore – 2013/11/01).....	69
Grafikoa 18. Laginen histogramak (Itzurun – backshore – 2013/11/01).....	70
Grafikoa 19. Metatze-kurbak (Itzurun – backshore – 2013/11/01).....	70
Grafikoa 20. Laginen histogramak (Santiago – shoreface – 2013/11/02).....	72
Grafikoa 21. Metatze-kurbak (Santiago – shoreface – 2013/11/02).....	72
Grafikoa 22. Laginen histogramak (Santiago – foreshore – 2013/11/02)	73
Grafikoa 23. Metatze-kurbak (Santiago – foreshore – 2013/11/02)	73
Grafikoa 24. Laginen histogramak (Santiago – backshore – 2013/11/02).....	74
Grafikoa 25. Metatze-kurbak (Santiago – backshore – 2013/11/02).....	74
Grafikoa 26. Laginen histogramak (Itzurun – shoreface – 2013/12/08).....	78
Grafikoa 27. Metatze-kurbak (Itzurun – shoreface – 2013/12/08)	78
Grafikoa 28. Laginen histogramak (Itzurun – foreshore – 2013/12/08).....	79
Grafikoa 29. Metatze-kurbak (Itzurun – foreshore – 2013/12/08).....	79
Grafikoa 30. Laginen histogramak (Itzurun – backshore – 2013/12/08).....	80
Grafikoa 31. Metatze-kurbak (Itzurun – backshore – 2013/12/08).....	80
Grafikoa 32. Laginen histogramak (Santiago – shoreface – 2013/12/07).....	82
Grafikoa 33. Metatze-kurbak (Santiago- shoreface – 2013/12/07)	82
Grafikoa 34. Laginen histogramak (Santiago – foreshore – 2013/12/07)	83
Grafikoa 35. Metatze-kurbak (Santiago – foreshore – 2013/12/07)	83
Grafikoa 36. Laginen histogramak (Santiago – backshore – 2013/12/07)	84
Grafikoa 37. Metatze-kurbak (Santiago – backshore – 2013/12/07).....	84
Grafikoa 38. Laginen histogramak (Itzurun – shoreface – 2014/01/17).....	88
Grafikoa 39. Metatze-kurbak (Itzurun – shoreface – 2014/01/17)	88
Grafikoa 40. Laginen histogramak (Itzurun – foreshore – 2014/01/17).....	89
Grafikoa 41. Metatze-kurbak (Itzurun – foreshore – 2014/01/17).....	89

Grafikoa 42. Laginen histogramak (Itzurun – backshore – 2014/01/17).....	90
Grafikoa 43. Metatze-kurbak (Itzurun – basckshore – 2014/01/17)	90
Grafikoa 44. Laginen histogramak (Santiago – shoreface – 2014/01/18).....	92
Grafikoa 45. Metatze-kurbak (Santiago – shoreface – 2014/01/18).....	92
Grafikoa 46. Laginen histogramak (Santiago – foreshore – 2014/01/18)	93
Grafikoa 47. Metatze-kurbak (Santiago – foreshore – 2014/01/18).....	93
Grafikoa 48. Laginen histogramak (Santiago – backshore – 2014/01/18)	94
Grafikoa 49. Metatze-kurbak (Santiago – backshore – 2014/01/18).....	94
Grafikoa 50. Laginen histogramak (Itzurun – shoreface – 2014/02/21).....	98
Grafikoa 51. Metatze-kurbak (Itzurun – shoreface – 2014/02/21)	98
Grafikoa 52. Laginen histogramak (Itzurun – foreshore – 2014/02/21).....	99
Grafikoa 53. Metatze-kurbak (Itzurun – foreshore – 2014/02/21).....	99
Grafikoa 54. Laginen histogramak (Itzurun – basckshore – 2014/02/21)	100
Grafikoa 55. Metatze-kurbak (Itzurun – backshore – 2014/02/21).....	100
Grafikoa 56. Laginen histogramak (Santiago –shoreface – 2014/02/21).....	102
Grafikoa 57. Metatze-kurbak (Santiago – shoreface – 2014/02/21).....	102
Grafikoa 58. Laginen histogramak (Santiago – foreshore – 2014/02/21)	103
Grafikoa 59. Metatze-kurbak (Santiago – foreshore – 2014/02/21)	103
Grafikoa 60. Laginen histogramak (Santiago – backshore – 2014/02/21)	104
Grafikoa 61. Metatze-kurbak (Santiago – backshore – 2014/02/21).....	104
Grafikoa 62. Laginen histogramak (Itzurun – shoreface – 2014/05/16).....	109
Grafikoa 63. Metatze-kurbak (Itzurun – shoreface – 2014/05/16)	109
Grafikoa 64. Laginen histogramak (Itzurun – foreshore 2014/05/16).....	110
Grafikoa 65. Metatze-kurbak (Itzurun – foreshore – 2014/05/16).....	110
Grafikoa 66. Laginen histogramak (Itzurun – backshore – 2014/05/16).....	111
Grafikoa 67. Metatze-kurbak (Itzurun – basckshore – 2014/05/16)	111
Grafikoa 68. Laginen histogramak (Santiago – shoreface – 2014/05/16).....	113
Grafikoa 69. Metatze-kurbak (Santiago – shoreface – 2014/05/16).....	113
Grafikoa 70. Laginen histogramak (Santiago – foreshore – 2014/05/16)	114
Grafikoa 71. Metatze-kurbak (Santiago – foreshore – 2014/05/16).....	114
Grafikoa 72. Laginen histogramak (Santiago – backshore – 2014/05/16)	115
Grafikoa 73. Metatze-kurbak (Santiago – backshore – 2014/05/16).....	115
Grafikoa 74. Bataz besteko sedimentu balioak (Itzurun).....	117
Grafikoa 75. Hautespen balioen joera (Itzurun)	118

<i>Grafikoa 76. Alborapen balioen joera (Itzurun)</i>	119
<i>Grafikoa 77. Kurtosi balioen joera (Itzurun)</i>	120
<i>Grafikoa 78. Bataz besteko sedimentu balioak (Santiago)</i>	122
<i>Grafikoa 79. Hautespen balioak (Santiago)</i>	123
<i>Grafikoa 80. Alborapen balioen joera (Santiago)</i>	124
<i>Grafikoa 81. Kurtosi balioen joera (Santiago)</i>	125

1. Sarrera

Urola ibaiaren bokalean azken urteetan egindako eraikuntza lanek (parol muturreko luzapena, dikearen luzapena...) eragin zuzena izan dute Santiago hondartzaren bilakaeran. Dikeek babeska eskaintzen diote hondartzari eta ondorioz, ur lasaiak ditu, baina oso nabaria da urte gutxiren buruan, hondartzaren eta dunaren azalera abiada luzean zabaltzen ari dela.



Irudia 1. Santiago hondartzaren eboluzioa

Hondartzaren handitze hori ikusirik, bertako egoeraren azterketa bat burutzea erabaki da. Aldi berean, Zumaian beste hondartza bat izanik (Itzurun), bertako egoera ere aztertuko da, bien arteko antzekotasun zein ezberdintasunak bilduz.

Halaber, lan hau, Ane Lopetegi tutorearen laguntzaz, nik, Itziar Yereguik egin dut, gradu amaierako lan moduan.

Hain zuzen, lan honi dagokionez nire egin beharra, kanpaina ezberdinetan Zumaiaiko Santiago eta Itzurun hondartzaren neurketa topografiko eta hondar laginen analisia egitea datza. Honela, kanpaina ezberdinetan lortutako emaitzak alderatu eta bi hondartzaren ezaugarri fisiko eta sedimentologikoak aztertu eta parekatuko dira.

2. Ikerketa eremuaren kokapena

Zumaia, Gipuzkoako itsasertzean kokaturik, iparraldean Kantauri itsasoarekin, hegoaldean Zestoarekin, mendebaldean Debarekin eta ekialdean Getariarekin dauka muga. Herri honetan itsasoratzen dira Urola eta Narrondoko ibaiak, eta mendiez inguratutik dago, mendi hauen artean garaien Izarraitz eta Indamendi direlarik.




Irudia 2. Ikerketa eremuaren kokapena (Zumaia)

Zumaia bide ezberdinetatik hel daiteke: 634 errepidetik (Donostia-Bilbo bidea), Bilbo-Behobia autopistatik, eta baita, barrenetik, Zumaia-Zumarraga eskualde errepidetik.

Urola ibaiaren itsasadarrean eraiki zen herri honek, bi motako hondartza ditu. Alde batetik, ibaiaren bokaletan agertu ohi diren barra eta hareatza jatorria duen Santiago hondartza, eta bestalde Zumaia eta Deba artean dauden itsaslabarren oinpean sortutakoak (Itzurun eta Algorri).

✓ Santiago

Zumaia eta Getaria arteko mugetan, Urola ibaiaren bokalea eta kostako N-634 errepidearen artean kokatzen da; luzeran 350 m eta zabalera batz besteko 175 m ditu.



Irudia 3. Santiago hondartza

✓ Itzurun



Irudia 4. Itzurun hondartza

Herriaren sartaldean, Marianton eta Algorri muturren artean kokatzen den hondartza irekia da Itzurun. Haitzek hiru zatitan banatzen dute hondartza: San Telmo aldea (ermitapean), erdialdea, eta Marianton muturra. Luzeran 270 m eta zabaleran batz besteko 75 m ditu.

3. Helburuak eta metodoak

Proiektuaren helburu nagusia Zumaiako Santiago eta Itzurun hondartzen azterketa morfotopografiko eta granulometrikoa egitea izan da. Hondartzen azterketa hau, 2013-2014 azaroa/maiatza artean egin da, guztira 10 neurketa topografiko eta 90 hondar lagin hartuz, Itzurun zein Santiago hondartzetatik.

Neurketak eta laginen bilketak, itsas beherako momentuak aprobetxatuz egin dira, kasu gehietan denborale baten ostean. Neurketa topografikoak egiteko GPS-a erabili da eta laginen bilketak, 5-10cm sakoneran egin dira hondartzako guneezberdinetan. Hain zuzen, kanpo lana egiten hasi aurretik, hiru profil zehaztu ziren hondartza bakoitzean (mendebaldean, erdialdean eta ekialdean) eta profil bakoitzean hiru puntu ezberdinetatik hartu dira laginak: eremu infralitoralaren¹ goi ertzetik (shoreface), eremu mesolitoraletik² (foreshore) eta eremu supalitoraletik³ (backshore).

Bestalde, hainbat datu klimatologiko eta ozeanografiko bildu dira: marea taula, haizearen abiadura eta norabidea, eta baita olatuen altuera zein norabidea. Hondartzen begi bistako jarraipen bat ere egin da, emandako aldaketak zein gertaerak, argazki bilduma batean bilduz.

¹ Eremu infralitoral (shoreface): marea bizietan, itsasbehera arruntenak sortutako lerrotik behera.


² Eremu mesolitoral (foreshore): Itsasbehera bakoitzean agerian geratzen den eremua.

³ Eremu supalitoral (backshore): marea biziak edo denboraleak itsasgoran zehazten duen mugatik gorako eremua.

4. Euskal Herriko eta Zumaia inguruko klimatologia eta itsas dinamika

4.1. Klimatologia

Euskal Herriak ez du klima aldetik eskualde homogeen bat osatzen. Azaletik hiru alderdi bereiz daitezke:



Irudia 5. Klimaren araberako lurraldeen sailkapena

Isurialde atlantikoan Bizkaia, Gipuzkoa, ipar Euskal Herria ia oso-osorik, eta Arabako zein Nafarroako iparraldea sartzen dira; klima ozeaniarrean sartzen da bete-betean eta klima mesotermikotzat jo daiteke, tenperaturei dagokienean nahikoa moderatua, eta prezipitazio aldetik oso euritsu.

Eguzki izpiek duten inklinazioa ezberdina izaten da urtaro bakoitzean. Euskadin, udako solstizioan (ekainaren 21ean) eguzkiaren inklinazioa 70°-koa izan ohi da gehienez, eta neguko solstizioan (abenduaren 21ean) gutxienez 25°-koa. Eguzkiaren argiak 16 ordu irauten du udan gehienez, eta 9 ordu inguru neguan gutxienez.

Latitudeak Euskadiko klima gehien baldintzatzen badu ere, Atlantikoko itsas korronteen sistemagatik ez balitz, neguko klima Euskadin askoz ere hotzagoa eta prezipitazio kopurua urriagoa litzateke.

Bizkaiko itsasoak berak ere eragin zuzena du Euskadiko isurialde atlantikoko kliman. Batetik, Kantauri aldeko haize ahul eta itsas brisaren ondorioz, itsasertzeko hezetasun-indizea altua izan ohi da eta bestetik, iparraldeko haizeak urak Bizkaiko golkoan (Kantauri aldeko erpinean) gerarazten ditu. Horrek ura ikaragarri gainberotuarazten du, eta, ondorioz, lurrunketa itzelak eraginda, zaparrada izateko aukera nabarmena izan ohi da euskal itsasertzean.

Erliebeak ere alde nabarmenak eragiten ditu zona orografiko batzuetako eta besteetako parametro klimatikoen artean. Ingurune menditsuak tarteko, Atlantikoko haizeak ezaugarri ezberdinekin iristen dira Euskadira.

Penintsula HM-IE norabidean zeharkatzen duten aire-masa ozeanikoak, lehortu egiten dira bidean, eta Kantaurialderantz eta Frantziako hego-mendebaldeko lautadetarantz jaistekoan berotu egiten dira.


Haizea IM-koa denean ordea, euskal mendiak oso aproposak dira Atlantikoko aire-masak igarotzen uzteko, eta bizkor-bizkor egiten dute aurrera, Mediterraneo aldera. Haizeak gogor jo ohi du, eta euskal mendien erliebeak, ikaragarri errazten die bidea kondentsazioari, hodeiei eta azkenik prezipitazioari. Eta horrexegatik da euskal itsasertza Kantauri aldeko kostalderik euritsuena.

✓ **Prezipitazioa**


Orografiari begiratzuz gero, prezipitazioen intentsitatea oso ondo ulertu daiteke. Batetik, euskal mendiek mendebal orientazioa dute eta mendebaleko mendilerro eta ekialdeko Pirinioak garaigoak dira. Bestetik, Mediterraneo mendebaleko eskualde ziklo genetikoak nolabait ere airea xurgatu egiten du eta ondorioz, mendebaletik datorren haizea okertu eta Euskal Autonomia Erkidego osoa zeharkatuz bideratzen da Mediterraneorantz.

Hala ere, klima honetan prezipitazio-kopuruaz gain, kontuan izan behar da prezipitazio iraupena. Izan ere, askotan garrantzi handiagokoa izaten da zenbat denboran egiten duen euria, botatako ur-kantitatea bera baino.


Txandaka-txandaka denetarik izaten dugu, euririk gabeko tarteak, lehorteak, izugarrizko euri-jasak, eta prezipitazio motarik arruntena dugun, zirimiria. Euskalmet (Euskal Meteorologia Agentzia) web orritik 2012-2014 (maiatza) bitarteko datuak jaso dira. Zarautzen duen behatokia jasotako datuei esker irudikapen grafikoak egin dira, hilabeteen jasotako prezipitazio kopuru zein euri egunekin.



Grafikoa 1. Prezipitazioa Zarautzen (2012)



Grafikoa 2. Prezipitazioa Zarautzen (2013)



Grafikoa 3. Prezipitazioa Zarautzen (2014)

2012 eta 2013ko irailean prezipitazio kopuruak antzerakoa izan baziren ere, urria -abendua bitartean alde nabariak bila daitezke. 2013ko urria eta abendua lehorrakoak izan ziren, eta azaroan berriz euri-kopurua ia bikoiztu ($117,8 \text{ l/m}^2$ -tik $233,2 \text{ l/m}^2$) egin zen.


Aurtengo datuak alderatuz gero, Urtearen hasieran (urtarrila - otsaila) beste urtetako euri-egun kopuru antzerakoan izan badira ere, 2012an baino euri gehiago egin du eta 2013an baino gutxiago. Martxoa berriz, beste urteekin alderatuta oso euritsua izan da eta apiril-maiatza bitartetan euri-egun dezente izan badira ere, beste urteetan baino lehorrakoak izan dira.

✓ **Temperatura**


Hileko batez besteko temperatura bitarteak nahiko garrantzitsu eta esanguratsuak dira. Kostan, hilabete epelenen eta hotzenen arteko aldea 11 °C edo 12 °C-ren bueltan ibili ohi da, baina barrualdean 17 °C edo 18 °C-ra ere iritsi daiteke.

Kostaldeko behatokietan batez besteko temperaturarik altuenak uztaila-abuztuan erregistratu ohi dira. Udaberriko trantsizioko igoera, martxotik hasi eta ekainera bitartean, nahiko erregularra da, eta temperatura pixkanaka igotzen da hilabete batetik bestera baina irailak nahikoa gordetzen badu ere udako berotasuna, urria heldzean tenperaturak zakar samar egiten du behera, aldaketa nabarmenagoa izaten delarik azaroan sartzean.


Hilabetez hilabete Zarautzeko behatokian (Euskalmet, Euskal Meteorologia Agentziak emandako datuak) jasotako datuak beheko grafikoetan irudikatu dira, hilabete bakoitzean jasotako temperatura maximo zein minimoak eta batz besteko balioak adieraziz.



Grafikoa 4. Temperatura Zarautzen (2012)



Grafikoa 5. Temperatura Zarautzen (2013)



Grafikoa 6. Temperatura Zarautzen (2014)

Iraila eta abendu bitarteko hilabeteetan bataz besteko balioak antzerakoak izan ziren, balioek beherako joera erakusten dutelarik abuztuaz geroztik.

Bestalde, urtarriletik maiatza arteko bataz besteko temperaturek urtez urte igoera nabarmena izan dutela azpimarra daiteke, tenperatua maximo eta minimoak gradu gutxi batzuk gora behera aldatzen direlarik.

Aipatzekoa azkenik, tenperaturatik baxuena otsailean erregistratu direla azken bi urteetan (baita 2014an maiatza bitartean) eta balio maximoak, abuztua zein uztailen. 2014an berriz, maiatza bitartean, maiatzen jaso da baliorik handiena.

✓ **Haizea**

Eskualde geografiko bateko klima, neurri handi batean, jotzen duen haize nagusiaren ondorio da.

Gure herria, mendebaleko haize nagusiek zeharkatzen dute, meandro bikainak marraztuz, eta erdialdeko latitudeetako eskualdeetan hego edo iparreko aire korronteak edota arekiko kontrakorronteak sortuz. Ekialdeko haizeak berriz nahiko era erregularrean jotzen du.


Neguan, jet korrontea⁴ latitude baxu samarretan dabilenean, hau da 30 eta 40 gradu artean, nabarmen izaten dira mendebaleko zirkulazioak, depresioak eta hodei-fronteak. Udazkenean eta udaberrian, aire-fluxu horrek indarra galtzen duenean berriz, eguraldia ere aldakorrago egiten da normalean, eta aste batzuetan hegoko korronte epelak iristen diren bezala, hurrengoetan iparreko haize heze hotzek jotzen dute.

Udan, mendebaleko haizeen fluxu nagusiak iparrerantz egiten du eta ahuldu egiten da. Udako egun askotan, Euskal Herria antizikloiaren ekialdean egon ohi denez, ipar-haizea nagusitzen da eta horrek indartu egiten ditu eguneko brisak.


Kostaldean negu mineko hilabeteetan jotzen du haizeak gogorren. Bestalde, Kantauri itsasoko hego-ekialdeko kostaldean, enbata sarri jotzen duen haize tipikoa da. Hasi martxotik eta urrira arte sor daitezke, baina udan maizago izaten dira eta bereziki arratsaldean sortzen den arren, gauean ere izaten dira.

Herri bakoitzeko haize norabide ohikoena, inguruaren topografiaren baitan dago. Hori dela eta, hondartzak aztertzerako orduan haizeak izan duen norabidea eta abiadura aztertzeko Euskalmetek eskura dituen Zarautzeko behatokia jasotako datuak jaso eta irudikatu dira.


4 (Rossby) Jet korrontea "jet stream": troposfera goialdean behaturiko haizekada maximo bakoitza. Hiru mota:
a. Fronte polarreko jet korrontea: eremu epeleko depresioei lotuta (500 milibaretara behaturiko tenperatura-gradienterik gorenarekin lotuta egoteagatik)
b. Gau polarreko jet korrontea: neguan, 25 edo 50 milibarertara sortzen dena.
c. Jet korronte subtropikala: 200 milibare (neguan) eta 100 milibare (udan) artean garatzen dena.




Grafikoa 7. Haizearen abiadura Zarautzen (2012)




Grafikoa 8. Haizearen joera Zarautzen (2012)




Grafikoa 9. Haizearen joera Zarautzen (2013)



Grafikoa 10. Haizearen abiadura Zarautzen (2013)



Grafikoa 12. Haizearen abiadura Zarautzen (2014)



Grafikoa 11. Haizearen joera Zarautzen (2014)


Urte batetik bestera balioak ez dute gorabehera handirik erakusten. Abuztuaz geroztik, urte amaiera arte bataz besteko balioek gorako joera dute eta abiadura maximoak 2012-an zein 2013-an abenduan erregistratu ziren (115 km/h eta 128,8 km/h). Aurtengo urtarrila eta otsailean beste urteetan baino bataz besteko balio handiagoak jaso dira (19,3 – 21 km/h) eta martxoa maiatza bitarteko bataz besteko abiadurak, aurreko bi urtetako balioen artean (11,4-16,5 km/h) egon dira.

Bestalde, haizeak joera aldakorrak erakusten du urtean zehar. Orokorrean ipar norabideko haizea nagusitu zen 2012-an eta 2013-an berriz, ipar, ipar-ekialde zein hego-ekialdeko haizeak nabarmendu ziren. Aurten, urtarrila zein otsailean batez ere hego norabideko haizea izan da, martxoan hego-ekialdeko joera izan zuen, apirilean norabidea aldakorra izan zen eta maiatzean berriz ekialdeko haizea nagusitu zen.

4.2. Itsas dinamika

Euskal Herriko itsasertzean bi zirkulazio mota aurki daitezke. Lehenak, negukoak, M-E norabidea du Kantauriko kostaldean eta H-I norabidea Frantziako itsasertzean. Korrante hori homogeneoa da, udazken amaieran edo neguan dago indartsuen eta milia bateko lastertasuna du haize nagusien eraginez.

Bigarren zirkulazio eredua uztailaren erdialdetik urriaren amaiera artekoa da. Korrante hori aldakorra da eta itsasertzaren parean mendebalerako norabidea hartzen du haize nagusien indarrez.



Irudia 6. Zirkulazio eredua

Aurtengo neguan, Euskal Herriko kostaldeak pairatu dituen denboraleak, azken urteetako bortitzenetakoak izan dira. Euskalmeten arabera, gutxienez 1965.urtera egin beharko litzake atzera ezaugarri berdintsuetako aurrekari bat aurkitzeko.


Azaroaren hasieran hasi ziren itsasoaren lehen mugimenduak, kostaldea 3-6 metro bitarteko olatuek kolpatu zuten. Urtearen amaierarekin batera, beste denborale bat izan genuen eta Itzurun hondartzan nabaria izan zen eragina. Izan ere, hondartzaren mendebalera joateko pasabidean zen ekialdean haitzak bistaratu ziren. Egunetan barealdia egon bazen ere, urtarrilaren 28an berriz ere olatu handiek kolpatu zuten kostaldea, bi hondartzetatik hondarra eramanez.

Hala eta guztiz, otsailaren 2ko denboralea izan zen gogorrena. Egun honetan beste egun batzuetan baino olatu txikiagoak izan baziren ere, itsaso

txarrarekin batera marea oso biziak egokitu ziren eta ondorioz sortutako kalteak handiak izan ziren. Besteak beste, hondartzako zein barra muturreko hormak puskatu zituen eta garabia uretara bota zuen (ikus, eranskinetako argazki bilduma). Neguko azken denboralea martxoaren 4an izan zen eta hortik aurrera maiatza bitartean, itsasoak gorabehera txikiak erakutsi izan ditu.

Hondartzen azterketa garaian (2013/14 – azaroa/maiatza) olatu altuera zein jokabideari buruzko informazioa pasaiko buian jasotakoak hartu dira.

Azaroa - maiatza bitartean orokorrean, hondoko itsasoak ipar-mendebaleko (%65) norabidea izan du. Kasuren batzuetan mendebala (%30) eta oso gutxitan iparra (%5). Hala ere, aipatu beharra dago bi hondartzek ez dutela berdin jasaten olatuen indarra. Itzurun hondartza itsas zabalera irekia dago eta olatuek ez dute inolako oztoporik hondartzara iristeko, guneren batzuetan dauden haitzak salbu baina Santiago hondartza berriz, babestua dago Urola ibaiaren bokalean eraikitako kai-muturrekin eta ondorioz, olatu txikiagoak aurkituko ditugu bertan.



Grafikoa 13. Azaroa (2013) eta maiatza (2014) bitarteko olatu altuera maximoak

5. Urola ibaiaren bokaleko ezaugarriak

5.1. Urola ibaia

Urola ibaia, Oria eta Deba arroen artean, Gipuzkoan dago oso osorik. Ibaiak hegoaldeetik iparralderako bidea egiten du, hain zuzen ere, Aizkorri mendia magaletik hasi eta Zumaian itsasoratu arte (Kantauri itsasoa). Ibilbideak, 63,5 km ditu, urteko bataz besteko emaria $10,8 \text{ m}^3/\text{s}$ da eta ibaiaren arroa $337,5 \text{ km}^2$ da gutxi gorabehera.

Urola ibaiak sortzen duen bailara hiru eskualdetan banatzen da; batetik, Urola Garaia izenekoa, hau Legazpiraino luze da; bestetik Urola Erdia, Legazpitik Aizarnazabaleraino doana; azkenik Urola Kosta, Aizarnazabaletik itsasoratu arteko bidea egiten duena.



Irudia 7. Gipuzkoako ibaien eta ibarren mapa

Urola ibaiaren sorburua Aizkorri mendilerroaren inguruetan dago, Legazpi herriaren udal barrutian, Brinkola eta Barrendiola errekatxoak elkartzean

sortua; errekatxo horiek era berean beste ur laster txiki batzuen elkartetik sortuak dira (Pagola, Aierdi, Altzola).

Zati horretan harana oso estua da, eta ibaia mehartu egiten da mendien artean, ibaiadarren ur ekarpenik ia ez duela (uhar txiki batzuk kenduta). Goi ibilguan hainbat herri zeharkatzen ditu, hala nola Legazpi edo Urretxu; herri horietan, hiri eraikinek estaltzen dituzte ibilguaren zati handiak.

Azkoitira iritsita, Urola ibaiaren arroa zabaldu egiten da, eta adarrak eratzen dira; ezkerretik Katuin errekatxoaren ur ekarpenak hartzen ditu, eta eskuinetik, Ibaieder edo Urrestilla eta Errezil errekatxoak elkartzen zaizkio. Hor, Azkoitia eta Azpeitia herrien artean, Gipuzkoako ibai lautadarik zabalena eratzen du Urola ibaiak. Iraetatik aurrera, ibilgua zabalago bihurtzen da, eta azken kilometroetan mantso eta ur emari handiz jaisten ditu, Aizarnazabal baino lehentxeago Altxolaras errekatxoaren urak ere hartzen dituelarik. Behe ibilgu horretan, ibaiak hainbat meandro berezi eta ikusgarri eratzen ditu eta

ibaiak Zumaian amaitzen du bere ibilbidea, Kantauri itsasoan itsasoratuz.



Irudia 8. Urola ibaiaren ibilbidea

5.2. Urola ibaiaren bokala

Urola itsasadarrak historikoki aldaketa handiak jasan ditu Zumaian, orain dela gutxi arte portua bertako biztanleen bizi iturri izan baita.

1790ko hamarkada oso garrantzitsua izan zen Zumaia portuan, garai hartako egoera ekonomiko larria zela eta Udalak lehen sektorea berpizteko asmoz, lantzeko lurak hedatzeko lanak burutu baitzituen; Urola ezkerreko ihitokietako lurren saneamendu lanak egin eta herritarren artean saldu ziren.

Paduraren saneamendurako lehen proiektu hura handia eta garrantzitsua izan zen, besteak beste, itsasoari kendutako urak urrezta ez zitezen, hainbat altueratako dikeak eraiki baitziren. Hala ere, emaitzak ez ziren uste bezain onak izan, 1816an inolako giza akatsik egin gabe, ustekabean dikeak hautsi eta ibaiko urek erriberak hartu baitzituen, ondorio larriak sortuz.

Erribera berriak konpondu ondoren, portuko hobekuntza eta moldaketak geldituta egon ziren 1883. urtera arte.



Irudia 9. Urola bokala, kaia eta Arrangoletako zabalgunea egin aurretik

1841. urtetik aurrera, barnealdeko aduanak kostaldera eraman zirenean, Euskal Herrian eta bereziki Gipuzkoan, berpizkunde ekonomikoa ezagutu zen XX. mendera arte. Berpizkunde ekonomiko horren ondorioz, merkataritza trukeak ugartu egin ziren eta komunikazioka hobetu, hori behar-beharrezkoa baitzen merkataritzari begira. Portuko merkataritzaren hedakuntzarekin batera garraioen iraultza gertatu zen, hau da, lurrinezko ontziak hasi ziren erabiltzen belaontzien ordez eta, halaber, ontzien tamaina eta edukiera ere handitzen joan ziren. Berehala ikusi zen Zumaiako portua ez zegoela garapen ekonomikoaren ondoriozko premiei erantzuteko prestatuta eta argi zegoen, azpiegitura modernoak sortzeaz gain, portuko bi arazo nagusiak ezinbestez konpondu behar zirela (barraren arriskua eta ibaiaren sakonera txikia).

Hori horrela, 1848ko maiatzean, badiaren mendebaldean elkarri lotutako bi kai egiteko erabakia hartu zuen udalbatzak. Alde batetik, sARBIDEKO arazoak konpontzeko eta bestetik, merkataritzan eskatzen zituen azpiegitura eta zerbitzuak sortzeko.

Portuaren hobekuntzarako lehen proiektu orokorra, 1883ko iraila eta 1885eko azaroa bitartean idatzi zuen Francisco Lafargak (Gipuzkoako ingeniari burua). Txostenean, honako lan hauek gitea proposatzen zen:

1. *Merkataritza kaia*. 310 metro inguruko luzera izango zuen lerro zuzenean. Arroako ibaiadarreko zubi berritik irten eta biltegietara, kaltetara eta arranpla handira helduko zen.
2. *Ibaia bideratzeko dikea*. Obra hori aurrekoaren jarraipena zen eta kaiaren iparraldetik abituz Puntako Aritzaren zabaldegiraino iritsiko zen. Bi helburu lortu nahi zituzten horrela: alde batetik, kanalaren ibilbidea zuzendu eta sakonera handitzea, ibaiko nahiz itsasoko korronteek “sarrerako hondoak higa zitzaten”; bestetik, “sirga bide” gisa eta ontziei laguntzeko kai gisa ere nahi zuten erabili.
3. *Puntako Aritzako zabaldegia*. Lafraga jaunak hiru ataletan banatu zituen obrak:
 - a. *Zabalgunea*: Leku lau bat nahi zuen egokitu, Infernupeko errepideko produktuak garraiatu eta norabide guztietan banatzeko.
 - b. *Puntako Aritzaren eraisketa*: Punta hori ebaki egingo zen ibaiaren ibilbide berriari jarraiki. Horrela, korronteen hustuketa abiadura eta ibaia betetzeko prozesua ez lirakeke motelduko.
 - c. *Kaia*: ibaiaren ibilbidea luzatzea eta zabaldegiaren lubeta horma edo “hegal” perpendikular baten bidez eustea.
4. *Barra bideratzeko dikea*. Puntako Aritzatik olatu hormaraino zabalduko zen. Ibaiaren mendebaldeko erribera bideratzea zuen helburu, ibaiaren korronteak barraraino eramateko.
5. *Barrako olatu horma*. Olatu horma eta barra gutxienez 40 metro luzatu nahi zuen. Horrela, ontziak Ipar-ekialdeko ekaitzetatik babestuz eta olatuak motelduz ibaiaren sarrerara iristen lagunduko zuen.
6. *Olatu desbideratzailea*. Kanaleko leku arriskutsuena Ipar-mendebaldeko ekaitzek eragindako olatuetatik babesteko asmoz egingo zen.

Lafargaren proiektuak akatsak zituela ikusi eta 1887ko ekainean proiektu berria onetsi zen. Aldaketak hasierako aurrekontua igo zuen eta Lafragak proiektuaren exekuzioa arriskuan ikusirik, barraren eta kanalaren nabigagarritasun baldintzak hobetzeko ezinbestekoak ziren obrak besterik ez


egitea proposatu zuen. Proposamena onartu eta handik hilabete gutxira obrak esleitzeko lehiaketa burutu zen. Obra horren emaitzak oso onak izan ziren; portu handia egin zuten eta Zumaiako Udalarentzat bultzada ekonomiko garrantzitsua eragin zuen, Arrangoletako padurako hiribildua handitu egin baitzen.

XIX. mendea Ignacio Fort ingeniariak Santiagoko paduraren saneamendurako idatzi zuen proiektuarekin amaitu zen. Bere helburua lur horiek lehortu eta saneatzea zen nekazaritzarako erabil zitezzen. Helburu hori lortzeko, dikeak eta malekoiak egitea (gaur egun Urolaren ertzetan daudenen antzekoak) eta iparraldean kai muturra eraikitzea proposatu zuen.

Bere ustetan, aurkako korronteak Santiago hondartzako harea eramaten zuen eta marearekin bat egitean, harea alboetan geratzen zen eta beraz, dikea eraikiz gero, ez litzateke aurkako korronterik sortuko.

Udala, Marinelen kofradia eta biztanle asko proiektuaren kontra jarri ziren honako bi arrazoiak zirela-eta: aurreikusitako obrak eginez gero, Erribera Berrietako nahiz Zaharretako lurak eta Alpersail izeneko lekukoak suntsitu egingo ziren; gainera, kanaleko marearen azalera asko murriztuko zenez, zailagoa izango zen maniobrak egitea edo portuan irten eta sartzea. Baina bazegoen beste arrazoi bat ere: obrak egin ondoren geratuko zen marea espazioa ez zen nahiko izango pilatzen joango ziren ontziak andanan jartzeko.

Eztabaida askoren ondoren, proiektua baztertuta geratu zen eta interes bakarra, itsasoari irabazitako lurren saneamendua izan zen. Horretarako, harri-lubeta eraiki zuten mendebaldeko ibai ertzean, hau da, Arrangoletako Zabaldura izenez ezagutzen ziren lurretan.



Irudia 10. Arrangoletako dikea

1900. urtean hasi zen Zumaia portuen obren bigarren fasea: Estatuak Zumaia Udalarari lagatako lurren saneamendua. Julian Soriano bide ingeniariak, Zumaia Udal korporazioak emandako mandatua betetz, itxitura horma bat, Ondartxoko urak irtenarazteko estolderiaren eraikuntza eta Arrangoletako paduraren betetze lanak inguruetan zegoen hondar bankuaren dragatze lanetan lortutako materialez betetzea proposatu zuen.

Diru gorabeherak tarteko, obrak 1903. urteko azaroa inguruan hasi ziren, hondar bankuaren dragatze lanekin. Dragatze lan horiek beharrezkoak egin ziren gainera, azken urteetan hondar bankua asko zabaldu baitzen. Arazoa handia zenez, Arrate ingeniariak azterlan bat egin zuen Arrangoletako hondar bankuaren hazkunde azkarren arrazoiak argitzeko asmoz, eta lau faktore desberdinek batera egiten zutela adierazi zuen:

1. Arbillagaren Jute fabrikapen parean ibaia asko zabaltzen zelako.
2. Getariako errepideko metalezko zubiaren oinak eraikitzeko Urola ibaia desbideratu egin zelako.
3. Getaria eta Zumaia bitarteko errepidearen ertzetan islatzen ziren olatuak
4. Azkenik, hondar bankua sortzen zenean, mareak eragotzi egiten zituen eta etengabe hazten zen, aurreko hiru faktoreen eragina larriagoa eginez.

Proiektu lanak 1922. urtera arte luzatu ziren. Bitarte horretan, 1910an, Ignazio Zuloaga pintoreak Santiagoko hondartza erosi, etxea eraiki (1914) eta ermita erosi (etxea amaitu zuen urtean) zuen museo txiki bat jartzeko. 1916-1917 urteetan berriz, Zuloaga etxea itsasotik babesteko horma eraiki zen.



Irudia 11. Zuloaga etxea eta Santiago hondartza

Urte batzuk lehenago Fort-ek aurkeztu zuen proiektuarekin gertatu zen bezala, Udala, San Telmo Marinelen kofradia eta zenbait biztanle aurka izan zituen proiektu horrek ere. Arrazoietako bat hauek izan ziren:

- Santiagoko paduraren saneamendua eta Urola ibaiaren ezkerrekoa bideratzeko lanak eginez gero, ibaiaren kanalak 35 metroko gutxieneko zabalera izango zuen, eta horrek ontziak igarotzeko eta merkataritza kaian karga eta deskarga eragiketarako egiteko arazo handiak eragingo zituen.
- Eskuineko ertzean proiektaturiko dikearen eraikuntzak itsaskia eragingo zuen behin eta berriro portuaren barnean.
- Lur horiek maila ekinozioko marea bizietan lortzen zenaren azpitik zegoen, eta babesten zituzten malekoietan mailarik altuena ekinozioko marea bizietan lortzen zen mailatik 35 zentimetrora besterik ez zegoen. Hori dela eta, ibaia bideratzeko lanak egiten baziren, ibaiko uraren maila lurra babesten zituzten malekoien gainetik igo eta gainezka egingo zuen.
- Zumaiako portuko baldintza fisikoek nahiz nabigazio baldintzek okerrera egingo zutelako. Alde batetik, portu osoan kanal hutsa geratuko litzakeelako libre eta bestetik, ibaia bideratzeko egingo zen luzerako dikearen azken zatia olatuak itsaslabarrean haustera galaraziko zuen eta horiek, erreflexio efektuaren eraginez, itsaski iraunkorra eragingo zuten badiaren barnean. Ondorioz, ontziek ezingo zuten portuan babestu eta ezingo zituzten karga eta deskarga lanak behar bezala egin.

Arrazoi horiek medio, Sustapen Ministerioak ez zuen baimenik eman Santiagoko paduraren saneamendurako eta Urola ibaiaren eskuinaldea bideratzeko.

Udal korporazioak 1901. urtean Arbustaingo padura (Ondartxo) saneatzeko, betetzeko eta bertan eraikitzeko prozesua planteatu zuen. Hala ere, urte asko igaro zen Arbustaingo paduraren saneamendu eta beteketa lanak burutu baino lehen.

1911. urteko urtarrilean Victoriano Zelaia ingeniariak obren kontrataziorako proiektua eta baldintza plegua idatzi zituen. Padurako sarrerako ahoan horma bat eta arranpla eraikiko ziren, Arroako ibaiaren ibaiadarra dragatu egingo zen eta Puntako Aritza haitza errautsi. Obra horien helburua ibaia bideratu eta sakonera handitzea zen, barratik ontzi handiagoak igaro ahala izateko.

Obra paduraren beteketarekin eta itxitura hormaren eraikuntzarekin hasi ziren. Azken hori egiten ari zirela, ibaiadarra dragatzen hasi ziren eta dragaren ondorioz ateratako material eta hondakinak Ondartxoko dartsenan bota ziren.

Arbustaingo padura ixteko hormaren eraikuntza amaitu zenean, arranplaren eraikuntzan eta proiektaturiko gainerako obrei ekin zitzaien. 1919. urteko udan deskribatutako lan guztiak amaituta zeuden.



Irudia 12. Arbustaingo padura. 1915-16 bitartean, betetze lan istilutsuak


XIX. mendearen bukaeratik aurrera Zumaiako portuan egin zituzten azpiegitura lanek barraren eta kanalaren hidrodinamika eta nabigagarritasun baldintzak asko hobetu zituzten. Hala ere, emaitza hobeak lortuko ziren obra guztiak hasieran onetsi bezala gauzatu izan balira. Sustapen Ministerioaren aurrekontu egokitzapenek eragindako arazo onerik, “barrako kaiaren eta olatu hormaren” trazatuen aldaketak egin behar izan zituzten (ez zitzaion behar zuen zabalera eman) eta ezinezkoa izan zen Puntako Aritzako bankuaren errausketa lanak (1887. urtean hasitakoak) amaitzea.

Bestalde, Ondartxoren saneamendua eta Arroako ibaiadarraren dragatze lanak bukatu ondoren, merkataritzak, industriak, nabigazioak eta Hiribilduko ekonomiaren gainerako esparruek hazkunde handia izan zuten, eta horrez gain, Urolako Trenbidearen inaugurazioak ere onurak ekarri zituen. Hori horrela, 1922. urtean Zumaiako portuko sarbidea nahiko arriskutsua zen 200 tonatik gorako baporeentzat (batez ere neguan); barraren sakonera ez zen behar adinako eta ontziek hondoa jotzeko arrisku handia zuten. Beraz, ibaiaren nabigazio baldintzak eta sakonera hobetzeak lehentasuna zuen

Zumaiako portuaren etorkizunari begira. Gipuzkoa eta Nafarroako portu ingeniarien ustez, barra nahiz olatu horma gutxienez 50 metro luzatuz eta 15x2 metroko oinarria zuen Puntako Aritza izeneko bankoaren arrastoak desagerrarazi behar ziren, leku horretan ibaiak sakonera handiagoa izan zezan.



Irudia 13. Paol muturrak bi garai:
XIX. mende bukaera eta XX.
mende hasiera



Irudia 14. Bigarren garaia: 1927-28an

Olatu hormaren luzapen lanak eta Puntako Aritzaren errausketa 1927ko azaroaren 26an egindako enkantean esleitu ziren. Lanak hurrengo hilabeteetan burutu ziren eta 1928ko abenduan nahiko aurreratuta zeuden. Obra horiek hobekuntza nabarmenak ekarri zituzten eta sarrerako nahiz barrako baldintzak asko hobetu zituzten, bai amaieran eta baita obrek iraun zuten bitartean ere.

Bitarte horretan, 1922ko ekainean, Zumaiako Udalak eta Urola bailarako hainbat enpresarik Gipuzkoako Foru Aldundiari, karga eta deskarga lanak bagoietatik ontzietara eta alderantziz zuenean egiteko leku eta edukiera nahikoa izango zuen kai bat egitea eskatu zien. Horrela, Probintziako eta bereziki eskualdeko komunikazio sarea eta azpiegiturak asko hobetuko ziren, Urolako trenbidea porturaino irten bazen, merkatalgaien garraioa merkeagoa izango zen eta itsas trafikoa Zumaiatik bidera zitekeen, ordura arte Bilbo, Donostia eta Pasaiaiko portuak erabili behar baitziren.

Proiektuaren egilea Nicolas de Bizkarrondo azpeitiarra izan zen, eta Urola ibaiaren ezker aldearen mendebaldeko muturrean 100 metro inguruko kaia eraikitzea proposatu zuen. Horretarako ezinbesteko zen babez malekoiaren ondoko padura aprobetxatzea eta, beraz, betelana egin behar zen aipatutako malekoitik ekinozioko itsasbeheraren inguruetaraino, betelanaren kanpoko ezponda harri-hormaz babestuz.

Aldundiaren kaia martxan jarri ondoren, Zumaiko eta inguruetakoko ekonomia suspertu egin zen. Inauguratu ondoren, ordura arte Donostiako edo Pasaiaiko portua erabiltzera behartuta zegoen itsas trafikoko hura Zumaiko portura etorri zen. Hala ere, 1930.

urtearen hasieran portuaren hedapen zikloa etenda geratu zen. 1929an mundu mailako produktu salerosketa krisialdi larria jasan zuen gehiegizko produkzioaren ondorioz.



Irudia 15. 1926tik aurrera bukatutako Urolako moila (moila berria)

Urolako Merkataritza Kaiaren inaugurazioaren ondorengo urteetan ibaiaren sakonera gutxitzen eta, ondorioz, arazoa larritzen joan zen. Portuaren lokazte maila altuegia zenez, okerren zegoen eremua, hau da, merkataritza kaiaren pareko Narrondo ibaiaren zatia dragatzeko baimena eman zuten.

Lan horrek kanalaren sakonera txikiaren arazoa neurri batean eta epe laburrerako besterik ez zuen konpondu eta ibaiko sedimentuen pilaketa konpondu gabe geratu zen. Sakonera gutxitzen joan zen. Horrela, merkataritza kaiaren eta bokalearen bitarteko eremuan (ontziek portuan sartu eta irteteko gehien erabiltzen zuten eremua) sakonera metro bat baino gutxiagokoa izatera iritsi zen ekinozioko marea bizietako itsasbeheretan. Gauzak horrela, behar-beharrezkoa zen kanalaren sakonera handitzea eta bere horretan mantentzea. Bi aukera zituzten: dragatze lanak sarritan egitea (garestiak ziren oso) ala ibaia bideratzea, hustuketa korronteez sakonera berez mantentzea. Herrilan Zuzendaritza Nagusiak bigarren bidea aukeratu zuen.

Bi zati bereizi ziren dikearen diseinuan: barneko aldea eta kanpoko aldea. Lehenengoa kostako errepidearen burdinazko zubitik abiatu eta Santiagoko Hareatzaren muturreraino iritsi zen. Bere helburua kanalean beharrezko sakonera izatea zen (mareak ongi bideratuz). Gainera, Bizkaiko Golkoan ohikoak diren ekaitzek eragindako itsasgora bizietan urak portuaren barneko aldea estaltzen zuenez, sekzio horren altuerak ahalik eta txikiena izan behar zuen, hau da, korrontearen garbiketa efektua ziurtatzeko modukoa izango zen, baina ez altuagoa. Bigarren atala hareatzaren muturretik barraraino iristen zen. Bere helburua portuko barraren baldintzak hobetzea zen. Zati horretan ez zegoen bideratze lanen altuera mugatzeko arrazoirik, alderantziz baizik. Dikea ekinozioko itsasgora bizien mailatik gora igotzea komenigarria zela uste zen, horrela, arian ariko desbideratzearen bidez, olatuak portuan sartzea gararazteko, harri-lubetaren gainetik igarotzeko joera baitzuten.

Proiektua 1935eko apirilaren 30ean onetsi zen, baina Gerra Zibila hasi zenez, obrak ezin izan ziren Gerra amaitu arte abiarazi.



Irudia 16. Zumaia 1959

Eskuineko dikearen eraikuntzak kanaleko sakonera hobetu egin zuen, baina portuaren lokaztea ez zuen behin-betiko konpondu. Berrito ere, eta nahi baino sarriago, kanaleko zona jakin batzuetan dragatzen lanak egin behar izan ziren. Lanak ondorengoak izan ziren:

- a) barraren saneamendua (1954)
- b) maniobrak egiteko zirkuluaren garbiketa (1957)

c) barrako haitzen hondoa dragatzeko lanak (1961-1965)

1950eko hamarkadaz geroztik, portuan merkataritzarako itsas trafikoa gehitzen zen neurrian, garbi geratu zen bertako kaiek itsasotik iristen zen trafiko guztia jasotzeko gutxieneko baldintzak ez zituztela betetzen. Arazoa handitzen zihoala ikusirik, kaia 12 metro zabaltzea eta ahalik eta luzeena egitea (150 metro) aurreikusten zen. Proiektu horrek bazuen beste abantaila garrantzitsu bat ere: kanalaren nabigazio baldintzak asko hobetuko zituen. Proiektaturiko zabaldurak metro erdi sakonagoa egingo zuen, eta gainera, sakonera hori mantentzeko ez ziren dragatzen lanak etengabe egin behariko. Kaia zabaltzeko lanak 1965eko abenduan hasi eta 1968ko ekainaren erdialdera amaitu ziren.



Irudia 17. Zumaia 1969

Merkataritza kaiaren zabalkuntza lanak amaitu ondoren portuan egin ziren inbertsioak instalazioen mantenimendurako lanetara mugatu ziren: Urolako eta Narrondoko merkataritza kaien dragatze lanak eta oinezkoentzako igarobidearen eraikuntza. Dinamika horrek inflexio puntu bat izan zuen 1992.urtean Zumaia 2005 Plan Estrategikoa idatzi zenean. Proiektu horren helburua portua azken urteetako lozorro ekonomikotik ateratzea zen.

Ordura arte merkataritza sektorearen beharrak konpontzeak bazuen lehentasuna, gero, ekonomikoki eraginkorra eta bideragarria ez zela ikusi

zutenez, merkataritza portu zaharra aisialdi eta turismo jardueretarako portu bihurtzera zuzendu ziren ahalegin guztiak. Helburu horiek lortzeko bi jarduera proposatu ziren Zumaia 2005 Plan Estrategikoan. Lehenengoa, dikea eta kontradikea iparralderantz luzatuz, barra bideratzea eta bigarrena, kirol instalazio nautiko bat egitea.

Barra hobetzeko obrei dagokienez, sei aukera proposatu ziren eta guztiek filosofia bera zuten: egungo dikea nahiz kontradikea sakonera nahikoa duten zonetaraino luzatzea, horrela barraren amaiera ahalbidetu zedin. Proposamen arteko desberdintasuna dikeek ipar-mendebaldetik ipar-ekialdera hartu behar zuten norabidean zetzan.



Irudia 18. Urola ibaiaren bokala gaur egun

Aukera horiek HICMA Madrilgo ingeniari taldeak alderatu zituen eta, hirugarren aukera oinarritzat hartuz, beste aukera bat landu zuen. Kanpoko dikea eta kontradikea paraleloak izatea proposatu zuen; beraz, kanalak zabalera bera izaten jarraitzen zuen, Urolatik nahiz Narrondotik iristen ziren sedimentuak kanpora aterako zituen ur korrontearen abiadura gehitzeko. Azkenean, Eusko Jaurlaritzak HICMAren proposamena ontzat hartzea erabaki zuen.

Bestalde, Balenciaga ontziolaren ondoko kirol portuaren eraikuntza Zumaia 2005 planaren baitan eztabaida gehien eragin zuen gaia izan zen. Alde batetik, hori egitea bidezkoa zen ala ez eta bestetik, kokalekua egokia zen ala ez eztabaidatzen zen. Eztabaidak hilabete batzuk iraun zuen eta ondoren, kirol portua Balenciaga ontziolaren jarraian eraiki zen, paduraren erdia erabiliz.



Irudia 19. Zumaia kirol portua

6. Santiago eta Itzurun hondartzen ezaugarri orokorrak

Hondartzen eraketa, itsasbazterreko higadura-fenomenoekin lotuta dago. Higadura-fenomeno hauek bi fase dituzte: higatzailea eta eraikitzailea.

Higatzailea ekaitzalditan gertatzen da bereziki. Itsas olatuak itsaslabarren aurka modu bortitzean lehertzerakoan, harri eta har-koskoak botatzen dituzte itsaslabarreko harkaitzen kontra. Honen ondorioz, itsaslabarra erori egiten da eta askatutako harri-puska hauek higadura-prozesu gogorragoa jasaten dute, tirainaren indarra dela eta bata bestearen aurka talka egiterakoan.

Higadura-prozesu honetan sortzen diren partikulak, sedimentazio-prozesuak eratzen dituzte itsas bareko egunetan. Hau da fase eraikitzailea. Partikula arinenak, itsasoak eramaten ditu eta plataforma kontinentalean ezartzen ditu, sakontasun gutxiko inguru hauetan limoak metatuz. Hareak eta hartxintxarrak kostaldean geratzen dira eta hondartzak eratzen dituzte itsaslabarren oinarrietan eta ibaien bokaleetan.

Agertzen direneko barruti geomorfologikoaren arabera, euskal kostaldeko hondartzak hiru multzo nagusitan bana daitezke: itsaslabarren oinarrietan itsas aldera eraikiak daudenak, itsasadarren bokalean daudenak eta badien barrualdeetan kokatutakoak.

Zumaian hain zuzen, bi mota ezberdinetako hondartzak aurki daitezke. Batetik, itsaslabarren oinarrietan itsas aldera irekia dagoen hondartza estu eta txikia, Itzurun izenez ezaguna dena eta bestetik Urola bokalean kokatua dagoen Santiago hondartza.

✓ **Itzurun hondartza**

Itsasoari irekia, Marianton eta Algorri muturren artean kokaturik, luzeran 270 m eta zabalera batz besteko 75 m ditu Itzurun hondartzak.

Garaiera handiko itsaslabarren artean mugatua eta ipar-mendebaldeari begira olatuen indarra pairatzen du sarritan. Izaera aldakorra duen hondartza bizia da, itsasaldien eragina agerikoa da eta marea biziaren garaian hondar azalera ia guztiz desagertzen da.



Irudia 20. Itzurun hondartza


Bertako balio paisajistiko, geologiko eta biologikoak direla eta, Deba - Zumaia Biotopo Babestuaren barnean dago.

Hareak eta urak iodo kopuru handia dute, Kantauri itsasoan iodo gehien duen hondartza da hain zuzen. Uda amaierako eta udazken hasierako itsasoko denboraleek algak (*Gelidium mota*) errotik ateratzen dituzte itsas hondotik eta hondartzan pilatzen dira.

Aspaldi, Zumaiaiko baserritarrek abereen azpietarako eta simaurrakin nahastuta, sorok ongarrizko erabiltzen zituzten. XX. mendeko 60ko hamarkadan komestikogintzarako biltzen hasi ziren eta gaur egun oraindik, ijitoen etniako familiak algak biltzen jarraitzen dute Itzurun hondartzan.



Irudia 21. Itzurun hondartza algez betea




Irudia 22. Algak jasotzen

Edonola ere, erregistro geologikoaren aldetik dira interesgarriak Zumaiako labarrak. Deba aldetik Getaria aldera, gutxi gorabehera duela 100 milioi urtetik duela 50 milioi urtera bitarteko historia osoa dago jasota. Besteak beste, Itzurun hondartzan urre koloreko iltze baten bidez adierazita ageri dira Daniar/Selandiar eta Selandiar/Thanetiar denbora mugen estratotipoak⁵. Baita Paleozenoa eta Eozenoaren arteko trantsizioa definitzen duen denbora muga ere.



Irudia 23. Mugen kokapen mapa



Irudia 24. Zumaiako muga geokronologikoak

⁵ Estratotipo edo GSSP (muga geokronologiko zehatza): IUGS taldeak (International Union of Geological Sciences) definitutako mugak dira, eta oinarrizko erreferentziak dira lurraren historia aztertzeko.

- **D/S eta S/T MUGA: Daniar/Selandiar eta Selandiar/Tanetiarr estaien mundu-mailako estratotipoak barne hartzen dituen tartea.**

2007ko ekainean, Paleocene working group taldeak Paleozenoko estratotipoak Zumaian kokatzea erabaki zuen.

Paleozenoa duela 65,5 milioi urteko K/T mugaren eta duela 56 milioi urteko P/E mugaren arteko garaia da. Geologiaren atal hori Zumaian oso-osorik ikus daiteke. Azaleratze guztiaren zatirik ezagunena eta ikusgarriena ere bada, Algorri punta, San Telmo aldea eta Itzurungo hondartzaren zati bat hartzen dituelako. Paleozenoko hamar milioi urteak hiru alditan banatuta daude: Daniarra (65,5-60,5), Selandiarra (60,5-58,7) eta Thanetiarra (58,7-56). Aldi horien guztien mugak oso ondo agertzen dira Itzurungo hondartzan. D/S muga itsas mailaren erorketa handi batek definitzen du eta S/T muga, berriz lurraren magnetismoan emandako polo aldaketa batengatik ezagutzen da.




Irudia 25. D/S eta S/T mugak

- **P/E MUGA: lurraren beroketa handia**

Paleozenoaren eta Eozenoaren arteko muga, duela 56 milioi urtekoa da. K/T-ko suntsipen handia gertatu eta hamar milioi urtera, Lurraren historia geologikoko beroketa nabarmen eta azkarrenetako bat gertatu zen. Mundu osoan hainbat gauza eraldatu zituen: karbonoaren banaketa, ozeanoaren osaketa eta zirkulazioa, eta ekosistemak, baldintza berriei egokitu behar izan baitzuten. Beroketa handi horrek eragin biotiko sakona izan zuen, bai

itsasoko komunitateetan, bai lurrekoetan; esaterako, ugaztun askok iparraldera migratu zuten eta bentoniko asko desagertu egin ziren.

Beroketa handi hori itsas hondo zaharrea erregistratu zen, orain Zumaiako geruzetan bistan dena. P/E muga Itzurun hondartzaren erdian dago, sarrerako eskulturen ondoan; lau metro inguruko zabalerako zati buztintsu gorrixka da. Zati hori aztertuz gero, P/E muga argi eta garbi zehazten duten anomaliak agertzen dira. Geruza buztintsuak honako berezitasunak ditu: itsasoko organismoaren oskolik ia ez dago (CaCO_3 bat-batean jaitsi baitzen) eta aldaketa isotopiko handiak ageri dira, ^{13}C eta ^{18}O isotopoei bat-bateko gainbehera izan baitzuten. Osaketaren aldaketa horiekin lotuta, geruzetan dauden mikrofosiletan ere aldaketa biotiko handiak ere antzeman daitezke beroketa honekin lotuta.




Irudia 26. P/E muga

Duela 56 milioi urte inguru gertatu ziren anomalia horiek guztiak ingurumen-aldaketa sakon bat adierazten dute. Dirudienez, duela 56 milioi urte, Ipar itsasoan laba asko sartu zen; horrek ozeanoaren hondoko materia organikoa desegin eta CH_4 ugari isuri zuen. Isurketa honek ozeanoa azidifikatu zituen eta CH_4 hori eta CO_2 atmosferan sartzean, berotegi efektu handia sortu eta, ondorioz, Lurraren historiako beroketa handienetako bat ekarri zuen.

✓ **Santiago hondartza**

Urola ibaiaren bokalea eta kostako N-634 errepidearen artean Zumaia eta Getaria arteko mugetan kokatzen da Santiago hondartza; luzeran 350 m eta zabaleran 175 m ditu.

Dikeen luzapenek eragin zuzena izan dute hondartzaren bilakaeran. Urte gutxitan, hondartza eta dunaren azalera abiada handian zabaldu da eta era berean, dikeek itsasoaren indarraren aurrean babesak eskaintzen diote hondartzari, ur lasaiak aurkitzen direlarik bertan.



Irudia 27. Santiago hondartza

Hondartzaren atzealdean aurkitzen da, egun berreskuratze lanetan dagoen Urola itsasadarra Batasunaren Garrantzizko Lekuaren barne dauden duna eta padura. Euskal Herrian gelditzen diren bakarrenetako da Santiago hondartzakoa.

Duna sistema horretan landaretza berezia (136 espezie) bizi da eta mugimenduaren, gazitasunaren, eta lehortzearen aurkako babesak dituzten espezieak bizi dira soilik. Landaretza hori ilaraka antolatzen da haizearen, itsasaldien eta kresalaren aurka espezie bakoitzak duen babesteko gaitasunaren arabera.

Dunak mugikorrek dira, haizeak hondar aleak atzerantz botatzen ditu, duna mugituz, eta hori egonkortzeko ezinbesteko lana egiten du bertako landaretzak. Dunaren azken zatian, berriz, egonkortu egiten da, eta duna grisa izena hartzen du; oro har landaretzaz estalirik egoten da zati hau.



	1210
	2120
	2110
	2130

Irudia 28. Santiagoko dunan agertzen diren habitata, koloreka adierazita

▪ **Metatutako itsas hondakinen gaineko urteroko landaretza (1210 habitata)**

Hondartzaren goiko alde honetan, marea altuenekin olatuek materia organikoa metatzen dute. Eremu hauen kolonizazioa zaila da hareak elikagaiak metatzeko gaitasun txikia baitu. Gazitasunera moldatutako urteko espezieek osatzen dute komunitate hau.

Santiagoon *Salsola kali*, *Cakile maritima*, *Polygonum maritimum*, *Sline nicaeensis* eta *Honckenya peploides* espezieak ikus daitezke, azken hau EAEn Kaltebera gisa sailkatua.



Irudia 29. Sline nicaeensis

▪ **Itsasertzeko duna mugikorak, *ammophila arenaria* landaredunak (duna zuriak) (2120 habitata)**

Duna hauek helduagoak dira eta landare-estaldura handiagoa da. *Ammophila arenaria subsp. australis* da espezie egituratzailea baino



Irudia 30. Medicago littoralis

Santiagoko dunan azken urteetan desagertu egin da. *Aetheorhiza bulbosa*, *Carex arenaria*, *Medicago littoralis*, *Pancratium maritimum*, *Calystegia soldanella*, *Eryngium maritimum*, *Euphorbia paralias* espezieak ere bertan hazten dira.

▪ **Duna mugikor enbrionarioak (2110 habitata)**

Harea mugikorra den lehen lerro honetan landare iraunkorrak ageri dira. Gazitasun eta haize handiko eremua da eta era berean, drainatze altua duen ingurune lehorra da eta ondorioz, landare estaldura oso txikia aurkitzen da bertan.



Irudia 31. *Elytrigia juncea*
subsp. *boreoatlantica*

Habitat honetan espezie esanguratsuenak *Elytrigia juncea* subsp. *boreoatlantica* graminea da. Espezie honekin batera *Calystegia soldanella*, *Eryngium maritimum*, *Euphorbia paralias*, *Aetheorhiza bulbosa*, *Pancratium maritimum*... agertzen dira.

▪ **Kostako duna finkoak, landare belarkaradunak (2130 habitata)**

Landare belarkara eta zuhaixka txikiak nagusitzen dira substratu finkoetan. Landareen hazkuntzako baldintzak hobeak dira eta bertan agertzen den espezie kopurua altuagoa izatean landareek eremu batzuetan harea guztiz estaltzen dute. Landare espezie hauek agertzen dira: *Linaria supnina* subsp. *maritima*, *Helichrysum stoechas*, *Thymus praecox* subsp. *britannicus*, *Anthyllis vulmeraria*, *Koeleria albescens*, *Arenaria serpyllifolia*, *Lagurus ovatus* edo *Vulpia fasciculata*. Habitat honetan orkidea ikusgarriak ere agertzen dira.



Irudia 32. *Lagurus ovatus*

7. Lan prozeduraren deskribapena

Lan honetan Zumaiako Santiago eta Itzurun hondartzen azterketa morfotopografikoa eta granulometrikoa egin da, bertako egoeren nondik norakoak zeintzuk diren aztertuz.

7.1. Azterketa morfotopografikoa

Landa lanean, itsas-beherako unean bi hondartzen neurketa egin da (5 kanpaina) GPS-a erabiliz. Neurketa hauek burutzeko, lehenengo egin den gauza, bi hondartzetan puntu finko bana zehaztea izan da. Horretarako, puntuaren gainean basea estazionatu da, GPS-a tripode gainean jarriz. Behin argailua puntuan finkatu eta bluetooth bidez hargailu eta terminalaren arteko konexioa lortu ondoren, lehenik terminalean Toppers programa zabalduz hainbat parametro hartu behar dira kontuan: proiektuaren izena, lana ze motatakoa den (kasu honetan estatikoa), elebazio maskara, PDOP maskara, epoka, antenaren altuera eta neurketa modua (zuzena edo inklinatua) eta azkenik, behatu beharreko puntuaren izena. Bestalde, terminalean datuak sartzearekin batera, orri batean behaketa hasiera ordua zein bukaerakoa apuntatuko dira.

Parametro hauetatik garrantzitsuena, epoka izango da. Epokarekin, hargailuak zenbateko frekuentzian erregistratuko dituen datuak definituko da. Parametro hau, kanpo-lana burutu aurretik definituko da, bulegoan (GPS-a eta Toppers softwarearen bitartez). Beste parametroak aldiz, kanpo-lana burutu ostean ere aldatu daitezke, alegia, kalkulu prozesuan.

Metodo estatikoaren parametroak definituak daudenean, behaketa estatikoarekin hasiko da, honetarako bi bide ezberdin izanik: TOPSURV edo MINTER. Lehengo kasuan, “Inicio observación” emanaz hasiko litzateke neurketa eta bigarrean, hargailuan dagoen FN botoia sakatuz. Behaketa amaitzean, “Fin observación” edo FN botoia sakatu beharko da.

Metodo estatikoan lan eginez, puntuetan finkatutako argailuen artean base linea edo bektore tridimentsionala kalkulatu da. Emaitza moduan, koordenatuen gehikuntzak (ΔX , ΔY , ΔZ) izango ditugu.

Behaketa denbora tarte zabal batean burutuko da, pare bat orduz gutxigorabehera eta bitarte horretan hondartzaren neurketa egiteko aprobetxatuko da beste GPS argailu baten bitartez. Beraz, lehenengo eguneko landa lanean, koordenatu erlatiboekin egingo da lan eta behin bulegoan post-prozesua burutu ostean, eraldatu dira koordenatu horiek.



Irudia 33. Santiago hondartzan, puntu finkoaren neurketa



Irudia 34. Itzurun hondartzan, puntu finkoaren neurketa

Hurrengo urratsa, roverra zuin gainean lotu, antena jarri eta piztea izango da. Basearen moduan, roverra ere bluetooth bidez konektatuko da libretara eta modu honetara konfiguratu da:

- Configuración GPS: Tiempo real radio
- Sistema de coordenadas:
Proyección: SPAIN30 UTM ETRS89
Datum: ETRS89
Geoide: <ninguno>

- Unidades:
 - Distancia: metros
 - Angulo: grados (gones)
- Mostrar:
 - Tipo de coord.: Proyección
 - Orden de las coord.: este, norte, h

Behin guztia konfiguratu ostean, basea martxan dagoenez, hondartzaren neurketa egitean honekiko dituen diferentziak lortuz lan egingo du.

Kasu honetan, hondartzak RTK (Real Time Kinematic) teknika erabiliz neurtu dira. RTK sistemek, estazio base bakarra (kasu honetan, estatiko erlatiboan neurtutako puntua) erabiltzen dute hargailu moduan eta unitate mugikorrei dagokionez, kopuru mugatua. Baseak, neurketak egiten dituen fase eramailea transmititzen du eta unitate mugikorrek bere neurketa faseak baseak jasotzen dituen neurketekin konparatzen ditu. Basetik unitate mugikorrera, seinale zuzendu hori bidaltzeko hainbat aukera daude. Denbora errealean seinalea transmititu eta kostu baxua duen aukera, irrati modem bat erabiltzea da, normalean UHF bandan. Lurralde gehienetan, frekuentzia zehatz batzuk zehazki RTK erabilerako hautatzen dira eta ekipo topografiko gehienek, UHF banda modema integratua izaten dute aukera estandar moduan. Metodo honekin, 2cm-ko zehaztasuna lortzen da.



Irudia 35. Hondartzaren neurketa GPS bidez

Kanpo lana amaitzean, datuen deskarga egingo da. Roverreko datuak, hau da, hondartzan altxatutako puntuak terminaletik jasoko dira zuzenean. Estatikoan

jasotako datuak berriz, ordenagailuan PC-CCDU programaren bitartez **tps** formatuko fitxategi bat lortuko dugu.

Hasiera batean, GPS kalkulu bat egiteko puntu ezagun bat euskarri moduan izatea beharrezkoa da, baina Euskadiko GNSS sareko datuen deskarga egitea posible denez, ez da beharrezkoa izango. Kasu honetan, Igeldoko basea erabili da post-prozesuko kalkulua egiteko.

Datu hauek, IGEL basearen datuak, b5m.gipuzkoa.net web-orritik jaitsi behar dira. Horretarako lehenik eta behin behaketak egin ziren eguna eta ordua zehaztu behar dira. Kasu honetan behaketak 2013ko azaroak 1 eta 2013ko azaroak 2an egin ziren, 8:15 inguruan hasi eta 11:00 pasatxo arte, edo 7:20 inguruan hasi eta 10:00 pasatxo arte UTC ordua kontuan izanik; hau da, 2013ko 305 eta 306 eguneko 8, 9 eta 10. orduak (7:15-etatik 10:00-tara UTC denboran, 8:15-etatik 11:00-tara tokiko orduan), eta ordu hauei dagozkien letrak H, I, eta J dira (eguneko 0h-1h UTC A, 1h-2h UTC B ... kontsideratuz). Horrez gain, datu gordinen fitxategiak **d** edota **o** izango dira, eta efemerideak **n** formatuan egongo dira. Horrela jaitsi beharreko dokumentuek honako formatua izango dute:

- Datu gordinak: IZENA-EGUNA-ORDUA.URTEAo (igel305h.13o)
- Datu gordin konprimituak: IZENA-EGUNA-ORDUA.URTEAd (igel305h.13d)
- Efemerideak: IZENA-EGUNA-ORDUA.URTEAn (igel305h.13n)

Post-prozesurako erabiliko den programa Topcon Tools da. Programa zabaltzean, lan berri bat sortu behar da, izena eta konfigurazioa hautatuz. Pantaila zabaltzean berriz, WGS84 erreferentzi-sisteman dagoela konprobatu, eta basearen datuak zein aurrez aipaturiko Igeldoko Rinex fitxategiak kargatuko dira. Datuak kargatzean, behaketen artean gainjartzea dagoela konprobatuko da “ocupación” ikonoan begiraturaz.

Hurrengo urratsa behatutako puntua eta erreferentzia estazioa editatzea izango da. Behatutako puntuan, izena, behaketa egunean neurtutako antenaren altuera eta berau neurtzeko erabilitako metodoa (bertikala), eta antena mota (Topcon HiperPro) editatuko dira.

Behin datuak editatuta, post-prozesu kalkulua egiten hasiko da. Horretarako, “GPS+Postprocessing” botoia sakatuko da eta une horretan doiketa askea egiten hasiko da. Doiketa aske honen helburua sarearen barne funtsa konprobatzea da, sarearen errore erlatiboak konprobatuz. Doiketa hau karratu txikiaren metodoa erabiliz egiten da, bi puntu ezberdinetatik lortutako koordenatu pareekin. Ondoren, triangeluen itxidura errorea aztertzen da eta perdoiaren gainetik dauden kasuetan, (izenaren ezker aldean puntu gorri batez adierazita egongo da) arazoak sortzen dituzten bektoreak desaktibatzen dira. Honela, WGS84 erreferentzia-sisteman koordenatuak eta GPS behaketan lorturiko zehaztasuna lortuko dira.

Ondoren koordenatuak editatu beharko dira. Horretarako, normalean estazioen azalpen orrietan koordenatuak ETRS89 sisteman ageri direnez, pantailaren eskuinaldeko behealdean SPAIN ETRS89-ra aldatuko beharko da. Betalde, Igeldoko estazioaren inguruko informazioa (latitua, longitua eta altura elipsoidala) b5m.gipuzkoa.net web-orritik hartu beharko da.

Behin Igeldoko koordenatuak izanda, puntu finko moduan markatuko da, “control” gainean, “ambos” (puntu finko horizontalean eta bertikalean ezartzen du) aukera sakatuz. Horrela, puntu finkoa izanda, “adjustment” botoia sakatuko da eta doiketa behartua egiten hasiko da. Doiketa behartuak koordenatu ezaguneko puntu bat edo batzuk kontrol puntu moduan erabiltzera inplikatu du eta kontrol puntu hauek, aukeratutako erreferentzia sisteman modu absolutu batean, sarea finkatuko dute. Behin, puntuak doituak daudenean, WGS84-tik SPAIN ETRS89-ra aldatu beharko da, doitutako puntu horien koordenatuak UTM ETRS89-an altura elipsoidalarekin lortzeko. Azkenik, datuak esportatuko dira berauekin lan egiteko.

Post-prozesua erabat amaitzeko ordea, Z koordenatuaren transformazioa (altura elipsoidala ortometrikora pasa) egin beharko da. Horretarako, esportatuko koordenatuak modua honetan editatuko dira:

PUNTUAREN_IZENA x y ZIRIA ALTURA_ELIPSOIDALA

Jarraian, IGN-ek duen PAG programa zabalduko da kalkulagailu geodesikoa erabiltzeko eta ondorengo hautaketa egingo da:

- Sistema de referencia: ETRS89
- Coordenadas: UTM
- Modo de trabajo: desde archivo

Goian aipaturiko fitxategia aukeratu eta “Datos de salida” sakatuko da aukeraketa hau eginez: ETRS89 UTM, ED50 UTM eta altura ortometrikoa. Azkenik, “Guardar resultados como...” emanda datu horiek gordeko dira.

Bestalde, hasieran aipatu denez, hondartzan neurtutako koordenatuak marrazteko, sistema absolutura pasa behar dira. Izan ere, puntu horiek baseak duen koordenatu erlatiboarekiko daude hartuta. Horretarako, post-prozesu aurreko eta ondorengo basearen koordenatuen diferentziak (ΔX , ΔY , ΔZ) kalkulatu dira. Diferentzi hauek, hondartzan altxatutako puntu guztiei batuko zaie eta horrela, koordenatu egokiak (ETRS89 UTM, altura ortometrikoarekin) lortuko dira.

Bigarren kanpainatik aurrera, basea martxan jartzearekin batera post-prozesuan basearentzat kalkulatu koordenatuak sartuko dira, horrela RTK bidez lortutako koordenatu guztiak (hondartzan altxatutako puntuak) absolutuak izango dira.

Hurrengo urratsa, neurketetan lortutako datuak grafikoki adieraztea izanda da. Kontuan izan behar den lehen gauza artxiboaren formatua izango da, MDT-ak puntuen artxiboa formatu ezberdinetan inportatzeko aukera ematen baitu. Kasu honetan ondorengoa erabili da:

IZENA	X	Y	ALTURA_ORTOMETRIKOA
BASE_16	559971.107	4794347.039	40.833
ITZU_01	559943.189	4794363.517	1.700
ITZU_02	559937.211	4794363.442	1.276
ITZU_03	559932.058	4794366.656	0.876
...			


Horrez gain, badira kontuan hartzeko bi xehetasun. Batetik, kontuan izan behar da zutabe ezberdinak bereizteko erabilitako bereizgailua (kasu honetan tabuladorea erabili da) eta bestetik, dezimalen bereizketa puntu bidez adieraztea, MDT-ak koma milakoak bereizteko erabiltzen baitu.

Behin fitxategia prest izanda, marrazteko programan (AutoCad) ondorengo pausoak jarraitu dira:

1. Puntuak inportatu. MDT > Puntos > Importar




Irudia 36. Puntuak inportatzeko jarraitu beharreko pausoak




Irudia 37. Formato, operazio eta aukeraketa ezberdina egiteko leihatila

“Aceptar” sakatu eta “Fichero de puntos” jartzen duen leihatila bat zabalduko da. “Tipo” jartzen duen lekuan, “Todos los ficheros” aukeratu eta aurrez sortu den puntuen fitxategia aukeratu da. Puntuak honela irudikatuko dira:




Irudia 38. Grafikoki puntuak marraztuta

2. Eremuaren muga definitzea. Gainazala sortzeko, eremua definitu beharko da aurrez. Horretarako, muga definitzen duten puntuak lotuko dira. MDT > Lineas Rotura > Linea de Contorno




Irudia 39. Eremua definitzen duten puntuak lotzeko




Irudia 40. Eremuaren muga definitua (línea contorno)


3. Gainazala sortzea. MDT > Superficies > Crear Superficie



Irudia 41. Gainazala sortzea




Irudia 42. Gainazal berriaren izena eta non gorde



Irudia 43. Gainazala sortzeko aukerak

Goiko irudian ikusten den moduan, gainazala sortzerakoan kontuan hartu beharko da triangelatu behar diren elementuak puntuak direla, eremua aurrez sortutako lerrokadurak (linea de contorno) mugatzen duela eta irudikapena erabatekoa izango dela.

Emaitza moduan TRI izeneko kapa berri bat sortuko da, irudikapena ondorengoa delarik:



Irudia 44. Triangelatze bidez sortutako gainazala

4. Sestra kurba bidezko gainazala. MDT > Curvado > Curvar




Irudia 45. Sestra-kurbak sortzeko pausoak




Irudia 46. Sestra-kurbak sortzeko aukera ezberdinak

Sestra-kurbak sortzerakoan, hainbat aldaketa egiteko aukera ematen du. Emaitza moduan gainazala sestra-kurbekin lortuko da:




Irudia 47. Sestra-kurbak sortuta

- Sare (malla) bidezko gainazala. MDT > Malla > Crear Malla a partir de Superficie




Irudia 48. Sarea sortzea



Irudia 49. Sarea sortzeko aukerak

Goiko leihatilan sarea sortu nahi den gainazala eta sarearen tamaina zenbatekoa nahi den aukeratzeko aukera ematen du, beste gauzen artean.

Behin aukeraketa eginda eta “Aceptar” emanda, lauki sare hori non gorde nahi den aukeratu beharko da. Sortu ondoren, lauki sare hori grafikoki ikusteko: MDT > Mapas > Dibujar Malla




Irudia 50. Sarea marraztea



Irudia 51. Sarea marrazteko aukerak

Behin aukeraketa egin ondoren, aurrez sortutako lauki-sarearen fitxategia aukeratu beharko da eta emaitza ondorengoa izango da:




Irudia 52. Sarea grafikoki sortuta


Helburu nagusia, bi sare ezberdinen arteko konparazioa egitea denez (kanpaina ezberdinetako gainazalen artekoa), bolumen ezberdintasunak lortzeko, prozesu guztia errepikatu beharko da

bigarren gainazala lortzeko. Behin hori eginda, bolumen diferentziak kalkulatu dira.

6. Bolumen diferentzien kalkulua. MDT > Volúmenes > Diferencia de Malla




Irudia 53. Bolumen diferentzia



Irudia 54. Bi saren arteko bolumen diferentzia

Aurreko leihatilan (Calculo de Volumenes), “Aceptar” sakatu eta programak bi fitxategi sartzeko eskatuko du (aurrez sortutako bi lauki-sareak). Behin hori sartuta, beheko eskuin aldeko irudian agertzen den moduan, bolumen diferentziei buruzko informazioa azalduko da.




Irudia 55. Sare fitxategien aukeratzea



Irudia 56. Bolumen diferentzien informazioa

Grafikoki emaitza berriz, ondorengoa izango da:



Irudia 57. Bolumen diferentzien emaitza

7.2. Azterketa granulometrikoa

Azterketa granulometrikoa egiteko, hondartza guztian zehar laginak hartu behar dira. Horretarako, 3 profil zehaztu dira Itzurun hondartzan eta beste 3 Santiagoko hondartzan.

Profil bakoitzean hiru lagin hartu dira puntu ezberdinetan: hondartzaren goialdean (backshore), eguneroko itsasgoren batez besteko muga (foreshore) eta marearen beheko muga (shoreface).



Irudia 58. Itzurun hondartzan laginak hartutako puntuak



Irudia 59. Santiago hondartzan laginak hartutako puntuak

Behin profilak eta puntuak zehaztuta, pala txiki baten laguntzaz hondar laginak hartu dira, gutxi gorabehera 200 gramo lagin bakoitzeko. Plastikozko poltsa ezberdinetan sartu eta izendapen egokia jarri zaio poltsa bakoitzari. Hasieratik erabilitako izendapenak, argia eta zehatza izan beharko du, gero laborategian nahasterik ez izateko.

Kasu honetan, erabilitako kodeak ondorengo informazioa ematen digu. Lehenengo letrak hondartzaren izenari egiten dio erreferentzia. Ondorengo bi zenbakiek, lagina zein profiletan hartu den eta profil horretako zein puntutan (1=shoreface, 2=foreshore eta 3=backshore) adierazten digu. Parentesi arteko letrak berriz, profilarik egiten dio erreferentzia, hau da, hondartzaren zein aldetan kokatzen den (W=mendebaldea, C=zentroa eta E=ekialdea). Azkenik data bat jarri da, lagina zein egunetan hartu den adierazten duena.

Adib.: I13 (W) – 2013/12/08. Lagina Itzurun hondartzako lehen profilean hartu da, hondartzaren goialdean (backshore). Profil hau hondartzaren mendebaldean kokatzen da eta 2013ko abenduaren 8an hartu zela adierazten du.

Laginak laborategian izanik, zorrotatik atera eta plater batean lehortzen jarriko dira eta nahasterik ez gertatzeko, plater bakoitzari etiketa bat jarriko zaio. Lehortzeko prozesua modu ezberdinetara egin daiteke: aire librean, estufa baten gainean edo labe bat erabiliz. Beti ere, kontutan izan behar da labean lehortuz gero 85 gradu baino altuagoko tenperatura ezin dela pasatu, sedimentuen ur osaketa ez ezabatzeko. Kasu honetan, lehortze prozesua aire librean egin da.



Irudia 60. Laginak lehortzen aire librean

Behin laginak lehortuta, zatiki lodi eta finaren bereizketa egingo da, 2mm-ko bahe baten laguntzaz. Balioak pisatu eta portzentajeak kalkulatu dira, zatiki lodian jasotako materiala aztertuz.

Ondoren, kutxara txiki eta ontzi bat erabiliz, zatiki fineko multzotik 30 gramo bereiziko dira eta lagina garbituko da materia organikoa kentzeko. Horretarako, kristalezko ontzi batera lagina pasa eta urez beteko da, apur bat irabiatu eta ura kenduko zaio.



Irudia 61. Zatiki finetik hartutako 30 gramo



Irudia 62. Laginak labean lehortzen

Bigarren aldiz lehortze prozesua burutuko da. Lehen aipatu bezala, metodo ezberdinak erabili ahal izango dira honetarako baina kasu honetan labe baten laguntzaz egin da, denbora aurrezteko. Honetako, labean sartu aurretik, etiketa bat jarri zaie kristalezko ontzi bakoitzari eta 80 gradutan labea izanik, lagin guztiak lehortzen utzi dira.

Hondarra lehortu ostean, bahe dorre batean sartu eta 15 minutuan astindu egingo da. Bahe dorrea ondorengo sare geruzaz osatua dago: 2mm, 1.25mm, 0.8mm, 0.5mm, 0.4mm, 0.25mm, 0.2mm, 0.125mm, 0.08mm eta 0.05mm. Ondoren, geruza bakoitzean geratutako hondar kantitatea pisatu behar da eta lagin bakoitzaren orrian apuntatu.



Irudia 63. Bahe dorrea astintzen

Datu hauekin, lagin bakoitzak duen hondar motaren portzentajea, histogramak, metatze-kurbak, batez besteko tamaina, tamaina balio zentrala, hautespena, alborapena eta kurtosia kalkulatu dira.


Histogramek emaitzak modu sinple batean irudikatzeko aukera ematen dute. Barren altuerak metatutako sedimentuen portzentajea adierazten dute eta zabalerak mota bakoitzari jarritako mugak.

\varnothing mm	
2,000 - 1,250	Very coarse / Oso lodia
1,250 - 0,800	Coarse / Lodia
0,800 - 0,500	
0,500 - 0,400	Medium / Ertaina
0,400 - 0,250	
0,250 - 0,200	Fine / Fina
0,200 - 0,125	
0,125 - 0,080	Very fine / Oso fina
0,080 - 0,050	Very coarse silt / Lohi oso lodia


Taula 1. Histogramaren zabaleraren mugak

Klase dominantea zein den ikusteko aukera ematen du eta histogramaren forma kontuan hartuta hiru mota aurki daitezke:

Unimodala: maximo bakarra du. Sedimentuen garraioa konstante izan dela, perturbaziorik gabe eta gehiegizko kargarengatik metatu dela adierazten du. Orokorrean sedimentu eolikoak eta itsastarrak dira (dunak, hondartzak, tonboloak...), aintzira edo laku batenak ere izan daitezke noizbehinka.




Irudia 64. Histograma unimodala



Irudia 65. Histograma bimodala

Bimodala: bi maximo ditu. Sedimentuen garraioa ez da konstantea izan, edozein motako perturbazioa dela eta, eta bi sedimentu mota nahastu direla adierazten du. Gehienbat itsastarrak izaten dira, estuarioak, deltak, ibai bokaletik gertukoak...


Polimodala: hainbat maximo. Flubiala, glaziarra, kobazulo depositoa, antropikoa. Sedimentu nahasketa adierazten du edo fluxu-energiaren aldaketa anizkunak.



Irudia 66. Histograma polimodala

Ehuneko metatuen kurbak, bahe bakoitzean atxikitako sedimentuen arabera eratzen dira. Lau motako kurba existitzen dira:

I Sigmoidala: sedimentu metaketa librearen seinalea dira. Inguruaren energia galera adierazten dute. Estratifikatutako metaketa hondartsuak izaten dira. Dunak, hondartzak ...



Irudia 67. Ehuneko metatuen kurbak

II Logaritmikoa: sedimentuaren garraioan materiala ez da tamainaren arabera metatu. Oso garraio motza jasandako deposituak edo gizakiak edo faunak nahastutakoak dira. Kobazulo, glaziar, malda irristadura, glacis ... motako deposituak izaten dira gehienbat. Orokorrean urik gabe gertatutako garraio motzak.

III Hiperbolikoa: dekantazio sedimentazioa adierazten du (sedimentu fina) oso energia baxuko eremuetan: padurak, lakuak, putzuak.

IV Parabolikoa: derrigortutako metaketaren seinalea dira, gehienbat ibai deposituak eta batzuetan hondartza babestuak (reflexio eta refrakzio fenomenoak). Oztopo baten kontrako metaketak edo fluxu energia aldaketak adierazten dituzte (malda lehunketak, ibai nagusia eta adar arteko elkarguneak ...).

Hautespenak (edo sorting edo clasificación), balio zentral batekiko norbanakoak duen banaketa adierazten du. Sedimentuak garraioan jasandako bilakaerak baldintzatzen du eta kurbak zenbat eta zuzenagoak izan, sedimentuek hautespen hobea izango dute.

HAUTESPENA (SORTING σ_1)	
$\sigma_1 = \frac{\phi_{84} - \phi_{16}}{4} + \frac{\phi_{95} - \phi_5}{6.6}$	
< 0,35	Very well sorted / Oso ondo hautatua
0,35 - 0,50	Well sorted / Ondo hautatua
0,50 - 0,70	Moderately well sorted / Moderatuki ondo hautatua
0,70 - 1,00	Moderately sorted / Moderatuki hautatua
1,00 - 2,00	Poorly sorted / Eskas hautatua
2,00 - 4,00	Very poorly sorted / Gaizki hautatua
> 4,00	Extremely poorly sorted / Oso gaizki hautatua

Taula 2. Hautespen balioen sailkapena

Oso ondo hautatuak: jatorri eolikoa duten sedimentuak. Duna, loess ...

Ondo hautatuak: gehienbat hondar itsastarra izaten dira, kasuren batean depositu eolikoren bat ...

Moderatuki ondo hautatua / Moderatuki hautatua: deltak, tonboloak, hondartza babestuak, estuarioak ...

Eskas hautatuak: ibai eta korrante zurrunbilotsuko deposituak dira. Ibaiak, euri-bideak, laku depositu batzuk ...


Gaizki hautatuak / Oso gaizki hautatuak: uholde deposituak, glaces eta deiekzio konoen metaketak, lokatz jarioak, depositu glaziarrak, nahastutako sedimentuak ...

Alborapenak (edo skewness edo asimetria edo simetria), populazio granulometriko batek bestearekiko duen nagusitasuna edo ez adierazten du.


ALBORAPENA (SKEWNESS SK1)		
$Sk_1 = \frac{\phi_{16} + \phi_{84} - 2\phi_{50}}{2(\phi_{84} - \phi_{16})} + \frac{\phi_5 + \phi_{95} - 2\phi_{50}}{2(\phi_{95} - \phi_5)}$		
0,3 - 1,0	Very fine skewed	POSITIBOIA
0,1 - 0,3	Fine skewed	
0,1 - -0,1	Symmetrical	SIMETRIKOA
-0,1 - -0,3	Coarse skewed	NEGATIBOIA
-0,3 - -1,0	Very coarse skewed	

Taula 3. Alborapen balioen sailkapena

Positiboa: batez-bestekoa, tamaina balio zentrala baino balio txikiagoa dauka. Hori, batez-besteko indar zinetikoa normala den baino baxuagoa izan dela adierazten du. Dekantazio edo metaketa prozesua nagusitu dela adierazten du.




Irudia 68. Alborapen positiboa



Irudia 69. Alborapen simetrikoa

Simetrikoa: tamaina desberdinetako sedimentuen distribuzioa simetrikoa da. Fluxuaren energia balio normaletan mantendu da aztertzen ari den sedimenturako. Ez da egon sedimentu garbiketarik, ezta dekantazio prozesurik.

Negatiboa: batez-bestekoa, tamaina balio zentrala baino balio handiagoa dauka. Hori, batez-besteko indar zinetikoa normala den baino altuagoa izan dela adierazten du. Garbiketa edo higadura prozesua nagusitu dela adierazten du.




Irudia 70. Alborapen negatiboa

Kurtosia (edo kurtosis edo agudeza), erdialdearen sakabanatzea eta maiztasun-kurbako muturren sakabanatzea konparatzen ditu. Asimetriarekin batera parametro nabarmenak dira populazio desberdineko nahastea antzemateko.


KURTOSIA (KUSTOSIS K_G)		
$K_G = \frac{\phi_{95} - \phi_5}{2.44(\phi_{75} - \phi_{25})}$		
< 0,64	Very platykurtic	PLATIKURTIKOA
0,67 - 0,90	Platykurtic	
0,90 - 1,11	Mesokurtic	MESOKURTIKOA
1,11 - 1,50	Leptokurtic	LEPTOKURTIKOA
1,50 - 3,00	Very leptokurtic	
> 3,00	Extremely leptokurtic	

Taula 4. Kurtosi balioen sailkapena

Leptokurtikoa: distribuzio zorrotza denean, sedimentua osatzen duten pikorrak, tamaina gutxi batzuetan kontzentratzen dira. Inguru sedimentarioan indar zinetikoa oso konstantea izan da. Inguru eolikoak, dekantazio eremuak, lakuak ...




Irudia 71. Leptokurtikoa



Irudia 72. Platikurtikoa

Platikurtikoa: distribuzioa motza oso laua denean, sedimentua osatzen duten pikorrak, oso tamaina anitzekoak dira. Inguru sedimentarioan indar zinetiko aldakorra edo oso aldakorra izan dela adierazten dute. Euri-bideak, ibaiak, malda deposituak, lokatza, nahastutako sedimentuak ...

Mesokurtikoa: distribuzioa beste bi multzoen artean gelditzen denean. Indar zinetikoa konstantea izan gabe, tarte batean mugitu egin da. Sedimentu itsastarrak.



Irudia 73. Mesokurtikoa


8. Landa, laborategi eta bulego lanen emaitzak

8.1. Lehenengo kanpainaren emaitzak

ITZURUN 2013_11_01															
PUNTUA	x	y	H	PUNTUA	x	y	H	PUNTUA	x	y	H	PUNTUA	x	y	H
Base_ITZU	559971,107	4794347,039	40,833	ITZU_53	559818,680	4794337,898	-0,252	ITZU_106	559996,828	4794476,827	1,658	ITZU_159	559961,098	4794370,911	3,368
ITZU_01	559781,071	4794335,941	-0,814	ITZU_54	559806,121	4794332,119	-0,394	ITZU_107	560003,450	4794465,734	2,664	ITZU_160	559966,021	4794370,846	3,775
ITZU_02	559776,900	4794341,823	-0,862	ITZU_55	559805,761	4794321,836	-0,432	ITZU_108	559987,441	4794462,575	1,541	ITZU_161	559962,160	4794379,929	2,969
ITZU_03	559787,536	4794340,560	-0,642	ITZU_56	559810,399	4794320,520	-0,403	ITZU_109	559995,381	4794449,164	2,606	ITZU_162	559973,277	4794375,472	3,582
ITZU_04	559794,505	4794345,030	-0,621	ITZU_57	559814,272	4794321,632	-0,395	ITZU_110	559981,582	4794446,514	1,720	ITZU_163	559967,143	4794389,116	2,840
ITZU_05	559801,940	4794349,768	-0,564	ITZU_58	559821,194	4794320,018	-0,366	ITZU_111	559971,508	4794442,288	1,321	ITZU_164	559979,576	4794388,135	3,403
ITZU_06	559810,523	4794356,944	-0,609	ITZU_59	559825,975	4794325,041	-0,185	ITZU_112	559985,244	4794436,306	2,402	ITZU_165	559981,585	4794374,962	3,886
ITZU_07	559817,830	4794367,961	-0,685	ITZU_60	559837,053	4794319,245	0,148	ITZU_113	559985,851	4794422,862	2,864	ITZU_166	559986,509	4794374,582	4,006
ITZU_08	559828,681	4794376,234	-0,680	ITZU_61	559851,025	4794310,693	0,528	ITZU_114	559970,172	4794422,916	1,876	ITZU_167	559989,804	4794379,495	4,088
ITZU_09	559836,837	4794383,699	-0,744	ITZU_62	559862,860	4794306,474	0,885	ITZU_115	559957,038	4794420,172	1,350	ITZU_168	559982,208	4794389,478	3,484
ITZU_10	559850,579	4794388,919	-0,487	ITZU_63	559868,961	4794316,154	1,001	ITZU_116	559965,995	4794408,376	2,129	ITZU_169	559979,151	4794402,007	3,019
ITZU_11	559855,558	4794401,727	-0,577	ITZU_64	559858,991	4794326,276	0,560	ITZU_117	559972,928	4794395,702	2,860	ITZU_170	559992,373	4794398,286	3,839
ITZU_12	559856,857	4794416,891	-0,766	ITZU_65	559845,141	4794327,958	0,287	ITZU_118	559956,913	4794396,479	2,059	ITZU_171	559998,177	4794401,729	3,946
ITZU_13	559869,031	4794418,667	-0,586	ITZU_66	559857,918	4794334,821	0,409	ITZU_119	559946,558	4794396,441	1,668	ITZU_172	559990,839	4794409,811	3,426
ITZU_14	559889,531	4794424,059	-0,356	ITZU_67	559872,853	4794333,836	0,727	ITZU_120	559938,570	4794392,857	1,451	ITZU_173	559983,986	4794419,969	2,833
ITZU_15	559901,780	4794436,170	-0,368	ITZU_68	559887,120	4794336,256	1,057	ITZU_121	559951,053	4794385,419	2,225	ITZU_174	559989,571	4794426,365	3,018
ITZU_16	559912,730	4794449,410	-0,398	ITZU_69	559879,225	4794348,723	0,622	ITZU_122	559956,887	4794380,083	2,766	ITZU_175	559999,798	4794431,341	3,442
ITZU_17	559915,811	4794465,190	-0,588	ITZU_70	559878,929	4794362,413	0,416	ITZU_123	559950,539	4794367,060	3,121	ITZU_176	560006,510	4794431,890	3,874
ITZU_18	559925,406	4794479,639	-0,564	ITZU_71	559894,370	4794355,000	0,931	ITZU_124	559935,820	4794368,776	2,096	ITZU_177	559996,337	4794443,220	2,919
ITZU_19	559929,885	4794492,794	-0,599	ITZU_72	559905,481	4794355,316	1,333	ITZU_125	559923,938	4794370,745	1,579	ITZU_178	560004,006	4794445,528	3,270
ITZU_20	559939,992	4794506,778	-0,466	ITZU_73	559896,412	4794368,347	0,826	ITZU_126	559915,614	4794360,799	1,589	ITZU_179	560012,147	4794444,574	3,861
ITZU_21	559945,424	4794520,835	-0,476	ITZU_74	559897,510	4794377,801	0,627	ITZU_127	559927,962	4794351,589	2,212	ITZU_180	560015,317	4794453,720	3,796
ITZU_22	559953,969	4794530,226	-0,363	ITZU_75	559911,667	4794370,634	1,263	ITZU_128	559929,191	4794337,257	2,719	ITZU_181	560008,247	4794453,679	3,299
ITZU_23	559952,918	4794538,837	-0,532	ITZU_76	559918,416	4794371,976	1,377	ITZU_129	559915,234	4794339,133	2,226	ITZU_182	559999,861	4794460,628	2,548
ITZU_24	559965,357	4794535,159	-0,183	ITZU_77	559925,290	4794374,757	1,297	ITZU_130	559904,551	4794333,465	1,939	ITZU_183	559991,177	4794456,450	2,000
ITZU_25	559967,894	4794520,892	0,051	ITZU_78	559919,162	4794379,667	1,041	ITZU_131	559915,436	4794321,889	2,981	ITZU_184	560003,820	4794464,666	2,724
ITZU_26	559967,518	4794512,118	-0,090	ITZU_79	559922,078	4794393,436	0,887	ITZU_132	559910,765	4794318,487	2,889	ITZU_185	560010,847	4794467,877	3,111
ITZU_27	559963,325	4794499,553	0,173	ITZU_80	559936,170	4794395,256	1,308	ITZU_133	559902,110	4794319,702	2,610	ITZU_186	560021,556	4794472,300	3,698
ITZU_28	559949,191	4794491,669	-0,101	ITZU_81	559929,280	4794406,976	0,793	ITZU_134	559899,292	4794318,160	2,630	ITZU_187	560025,195	4794481,427	3,518
ITZU_29	559953,014	4794477,682	0,163	ITZU_82	559943,424	4794411,903	1,110	ITZU_135	559895,277	4794316,476	2,312	ITZU_188	560016,038	4794481,865	2,926
ITZU_30	559935,776	4794473,568	-0,213	ITZU_83	559942,316	4794424,682	0,741	ITZU_136	559890,892	4794316,145	1,858	ITZU_189	560010,567	4794489,300	2,201
ITZU_31	559938,840	4794479,841	0,028	ITZU_84	559956,386	4794428,358	1,103	ITZU_137	559887,440	4794313,231	1,927	ITZU_190	560021,748	4794493,384	2,861
ITZU_32	559941,148	4794445,330	0,313	ITZU_85	559954,030	4794441,393	0,713	ITZU_138	559881,712	4794312,355	1,610	ITZU_191	560030,542	4794492,425	3,518
ITZU_33	559928,116	4794439,510	0,094	ITZU_86	559966,797	4794443,465	1,087	ITZU_139	559875,152	4794311,321	1,323	ITZU_192	560031,669	4794489,854	3,729
ITZU_34	559932,385	4794425,810	0,460	ITZU_87	559965,979	4794458,202	0,744	ITZU_140	559873,804	4794308,182	1,260	ITZU_193	560034,089	4794495,454	3,437
ITZU_35	559917,010	4794424,627	0,139	ITZU_88	559979,667	4794463,844	1,118	ITZU_141	559869,844	4794308,501	1,040	ITZU_194	560027,767	4794497,873	3,106
ITZU_36	559903,994	4794417,991	-0,002	ITZU_89	559974,090	4794477,718	0,665	ITZU_142	559917,649	4794318,606	3,231	ITZU_195	560018,809	4794504,713	2,277
ITZU_37	559912,835	4794407,914	0,376	ITZU_90	559988,798	4794482,139	1,103	ITZU_143	559925,508	4794315,906	3,605	ITZU_196	560022,207	4794516,908	2,118
ITZU_38	559898,834	4794406,515	0,125	ITZU_91	559984,059	4794495,750	0,761	ITZU_144	559936,116	4794312,198	3,939	ITZU_197	560022,934	4794523,431	2,067
ITZU_39	559907,410	4794394,814	0,495	ITZU_92	559998,201	4794500,748	1,244	ITZU_145	559934,791	4794322,985	3,544	ITZU_198	560028,504	4794523,487	2,401
ITZU_40	559892,924	4794394,535	0,234	ITZU_93	559993,459	4794515,993	0,894	ITZU_146	559943,196	4794323,509	3,857	ITZU_199	560033,884	4794523,390	2,768
ITZU_41	559879,140	4794396,177	-0,032	ITZU_94	560008,590	4794514,390	1,598	ITZU_147	559933,714	4794328,821	3,265	ITZU_200	560037,314	4794521,050	3,148
Eremu supalitoralean jaso dira balio negatibo handienak (SK₁₃: -0,142; SK₂₃: -0,181 eta SK₃₃: -0,200). Beste bi eremuetan balioak antzerakoan izan dira; eremu mesolitoralean (foreshore), balioa (SK₁₂: 0,012; SK₂₂: -0,148 eta SK₃₂: -0,150) ekialderantz joan ala handitu egiten da eta eremu infralitoralaren goi ertzean (shoreface) berriz, zentroan ertzetan baino balio txikiagoa da (SK₁₁: -0,098; SK₂₁: -0,150 eta SK₃₁: -0,125).




Grafikoa 80. Alborapen balioen joera (Santiago)

Kurtosia (kurtosis):

Laginen %2 platikurtikoa da, %45 leptokurtikoa eta %53 mesokurtikoa, batz besteko orokorra KG: 1,085 (mesokurtikoa, ia leptokurtikoa) delarik; itsasoaren edo haizearen indar zinetikoa konstante izan denaren seinale da.

Eremu infralitoralaren goi ertzean (shoreface) zein mesolitoralean (foreshore), hondartzaren mendebaldean izan da indarra konstateen (KG₁₁: 1,109 eta KG₁₂: 1,121), ekialderantz joan ala balioak txikitzen (KG₂₁: 1,093; KG₃₁: 1,020; KG₂₂: 1,105 eta KG₃₂: 1,104) direlarik. Eremu supalitoralean berriz, eremu osoan antzerako balioak jaso dira, zentroan balioa (KG₂₃: 1,043) txikiagoa delarik ertzetan (KG₁₃: 1.099 eta KG₃₃: 1,074) baino.



Grafikoa 81. Kurtosi balioen joera (Santiago)

9. Emaizten analisia

Zumaiako hondartzen azterketa morfotopografiko eta granulometrikoak orotara zazpi hilabeteko iraupena izan du. Zazpi hilabetetan bost neurketa topografiko eta bost egunetako hondar laginak bildu izan dira hondartza bakoitzean. Hain zure ere, 2013ko azaroan hasi eta 2014ko maiatzean amaitu ziren kanpo lanak.

Bitarte horretan, itsasoak gogor kolpatu izan du Zumaiako kostaldea, azken urtetako itsasaldi gogorrenetakoak ikusteko aukera egon da eta horrek izan duen eragina begi bistazkoa izan da.

Azaroaren hasieran itsasoaren lehen mugimenduak hasi ziren, 3-6 metro bitarteko olatuek kolpatu zuten kostaldea eta itsasoaren aldaketa hori aurreikusiz, azaroko lehen bi egunetan hondartzen altxaketa topografikoa zein laginen bilketa burutu zen. Kanpo lan egunean, 2,5-3 metro arteko olatuak izan ziren ipar-mendebaldeko norabidean eta haizeak 14,3-21,1 km/h batz besteko abiadura izan zuen ipar norabidean.

Ondorengo egunetan itsasoa baretu egin zen, haizeak 6,6-41,1 km/h batz besteko abiadura izan zuen, ipar norabidea nagusitu zelarik eta euri egunak dezente izan ziren, orotara 22 egun. Abenduan sartzean, ekialdeko haizea nagusitu zen, 7,4-17,5 km/h arteko abiaduran, ateri mantendu ziren lehen egunak eta olatuak (0,5-1,5 m artean) txikiak izan ziren. Barealdi hori aprobeztatuz, abenduaren 7 eta 8an bigarren aldiz hondartzen neurketa egin eta laginak bildu ziren.

Urtearen amaierarekin batera, bigarren denboralea izan genuen, haizearen abiadura (14,9-41,8 km/h) indartu egin zen, hego norabidea hartuz eta olatuak 4,5-5 metro arteko altuerara iritsi ziren. Urtarrileko lehen hamabostaldian ere egoera antzerakoa mantendu zen, hego norabideko haizeak jarraitu zuen 7,1-31,9 km/h abiaduran eta 5 metro arteko olatuak altxatu ziren. Denboraleak eragindako aldaketak ikusteko urtarrilaren 17 eta 18an hirugarren aldiz kanpo lana buru zen.

Bigarren hamabostaldian euriak ez zuen etenik izan eta egunetan barealdi txiki bat egon bazen ere, urtarrilaren 28an olatuak indartu (4,5-6 m) egin ziren, hego-mendebaldeko haizea nagusituz 14,9-31,2 km/h arteko abiadurekin.

Hala eta guztiz, otsaileko denboralea (otsailak 2-9 bitartean) izan zen gogorrena, 9 metro arteko olatuak eta 10-32,6 km/h abiadura izan bazuen haizeak batz bestea, 123,1 km/h haize ufadak ere jaso zirelarik; hondartzetan hondar mugimendua handiak sortarazteaz gain, hainbat kalte sortu zituen. Hori horrela, denborale ostean laginak jaso (otsailaren 21an) eta laugarren neurketa (otsailak 16 eta 17) burutu zen.

Hasierako egun horiek kenduta, otsaila bare joan zen, olatuak txikitu egin ziren, eta haizeak hego, hego-mendebaldeko norabidean nagusi izaten jarraitu bazuen ere abiadura motelagoa izan zuen.

Otsaileko barealdi horrek, denboraleen amaiera ematen bazuen ere, neguko azken denboralea martxoaren 4an izan zen; 5-9 metroko olatuak altxatu ziren eta ipar-mendebaleko haizeak batz bestea 28,5 km/h abiadura izan zuen, tarteren batean 99,8 km/h abiadurara iritsi zelarik.

Hortik aurrera, maiatza bitartean, itsasoa bare mantendu zen (olatuen altuera maximoa 3,5 m), haizeak norabide aldakorra izan zuen eta euria egun dezentetan egin zuen (apirilean 15 egunetan eta maiatzean 7 egunetan, neurketa egun bitartean). Hori horrela, ekaitzen ondorengo barealdiak hondartzetan izandako joera aztertzeke maiatzaren 14 eta 15an, bosgarren eta azken altxaketa topografikoa burutu zen eta maiatzaren 16an laginak jaso ziren.

ITZURUN

Azarotik urtarrilera hondar galera egon da hondartzan eta urtarriletik maiatzera hondarra pilatu dela ikus daiteke beheko taulan erreparatuz gero. Aipatzekoa ordea, hirugarren eta laugarren kanpainetan lortutako datuak. Datuen arabera, orokorki hondar pilaketa handiagoa izan da hondar galera baino urtarriletik otsaila bitartean, baina eranskinetako planoak eta argazkiak erreparatuz gero, hondartzaren mendebaldean haitzak ageri direla ikusten da. Hori dela eta, bertako egoera ikusirik (sakonera dezenteko putzua) hondartzaren eremu horretan ezin izan zen neurketarik egin eta ondorioz zati horretako hondar galera kalkulatzeko ez da posible izan.

		HONDAR LUBETA BOLUMENA (m3)	HONDAR LURERAUZKETA BOLUMENA (m3)
1. KANPAINA 2013/11/01	2. KANPAINA 2013/12/08	1970,825	4777,038
2. KANPAINA 2013/12/08	3. KANPAINA 2014/01/17	21,535	7655,581
3. KANPAINA 2014/01/17	4. KANPAINA 2014/02/16	1844,107	971,048
4. KANPAINA 2014/02/16	5. KANPAINA 2014/05/15	2237,238	325,596

Taula 28. Itzurun hondartzako hondar bolumen diferentziak (bolumen kalkulan, laukien tamaina 1 m)

SHOREFACE

Lehen kanpainatik bigarrenera hondartzaren erdi eta ekialdean eman zen hondar higadura, 0-0,60 m artean eta mendebaldean 0-0,40 m arteko metaketa atzeman zen. Hautespen balioa (σ_{11} : 0,564) berdin mantendu zen mendebaldean eta beste bi eremuetan apur bat okertu zen (desberdintasuna lehen kanpainatik bigarrenera, σ_{21} : 0,055; σ_{31} : 0,054). Sedimentuen batz besteko balioak ere handitu (desberdintasuna, l_{11} : 6,4 μ m, l_{21} : 35,9 μ m eta l_{31} : 13 μ m) egin ziren lehen laginetatik bigarrenera.

Bigarren kanpainatik hirugarrenera, hondartzaren behealde guztian eraman zuen hondarra itsasoak, ekialdean haitzak agerian geratu ziren eta mendebalean berriz 0,60-0,80 m arteko hondar galera egon zen. Olatuen energia altuagoa izan zen, hautespen balioak (bigarren kanpainatik hirugarrenera emandako hobekuntza, σ_{11} : -0,081; σ_{21} : -0,096; σ_{31} : -0,110) hobetu egin baitziren eta hondarraren batz besteko balioa handitu (desberdintasuna, l_{11} : 27 μ m, l_{21} : 32 μ m eta l_{31} : 20 μ m).

Urtarrila otsaila bitartean, aldaketa nabarmena mendebaldean atzeman zen; otsailaren hasieran izandako denboraleak, hondar guztia eraman zuen haitz plataforma agerian utziz. Zentroan gorabehera txikiko hondar mugimendua (-0,20 – 0,20 m artean) egon zen eta ekialdean 0,20 - 0,60 m artean metatu zen hondarra. Hautespen balioak hobetu (desberdintasuna, σ_{11} : -0,049; σ_{21} : -0,049; σ_{31} : -0,037) egin ziren, batz besteko tamaina mendebaldean handitu (desberdintasuna, l_{11} : 2,1 μ m) egin zen eta zentroan eta ekialdean berriz txikitu (desberdintasuna, l_{21} : -14,6 μ m eta l_{31} : -0,2 μ m).

Otsaila maiatza bitartean aldaketa hondartzaren ekialdean eman da, 0,40 – 0,60 m artean hondarra pilatuz. Erdialdean eta mendebalean berriz, ia ez da aldaketarik atzeman, -0,20 – 0,20 m arteko gorabeherak egon dira. Hautespen balioak okertu (desberdintasuna, σ_{11} : 0,027; σ_{21} : 0,111; σ_{31} : 0,053) egin dira, mendebalean batz besteko balioa txikitu (desberdintasuna, I_{11} : -6,4 μm) eta erdialdean eta ekialdean handitu (desberdintasuna, I_{21} : 41,5 μm eta I_{31} : 18,7 μm) egin direlarik.

FORESHORE

Azarotik abendura bitartean, mendebaldean 0,20 – 0,40 m artean metatu zen hondarra; zentroan eta ekialdean berriz, 0 - 0,40 m arteko higadura eman zen. Hori horrela, hautespen balioa okertu (desberdintasuna, σ_{12} : 0,062) egin zen mendebaldean, eta erdialdean zein ekialdean hobetu (desberdintasuna, σ_{22} : -0,079 eta σ_{32} : -0,085). Sedimentuaren batz besteko balioak berriz handitu (desberdintasuna, I_{12} : 68 μm , I_{22} : 55,6 μm eta I_{32} : 51,4 μm) egin ziren eremu osoan.

Abendutik urtarrilera, hondar higadura eman zen eremu osoan; mendebaldean eta ekialdean 0,40 – 0,60 m arteko desberdintasuna egon zen (ekialdean haitzak bistaratu) eta zentroan berriz 0,20 – 0,60 m bitartekoa. Ertzetan apenas atzeman zen hautespen balioen (desberdintasuna, σ_{12} : -0,003 eta σ_{32} : 0,008) aldaketa, baina zentroan (desberdintasuna, σ_{22} : 0,085) aldea nabariagoa izan zen. Bestalde, alboetako batz besteko balioak handitu (desberdintasuna, I_{12} : 9 μm eta I_{32} : 1,6 μm) egin ziren eta zentroan txikitu (desberdintasuna, I_{22} : -70,3 μm).

Urtarrietik otsailera, mendebaldean haitzak agerian geratu ziren, zentroan hondar higadura txikia (0 -20 m artean) atzeman zen eta ekialdean berriz, 0 – 80 m arteko hondar metaketa eman zen. Batz besteko balioak handitu egin ziren zentroan nahiz ekialdean (desberdintasuna, I_{22} : 51,3 μm eta I_{32} : 0,8 μm) eta mendebaldean berriz txikitu (desberdintasuna, I_{12} : -41 μm). Hautespen balioei dagokienean, eremu osoan hobetu ziren balioak (desberdintasuna, σ_{12} : -0,104; σ_{22} : -0,105 eta σ_{32} : -0,019).

Otsailetik maiatzera, geroz eta gehiago (0,20 – 0,60 m artean) pilatu zen hondarra mendebaldean, zentroan mugimendu txikia (-0,20 – 0,20 m artean)

atzeman zen eta ekialdean oraindik haitzak agerian bazeuden ere, hondar apur bat (0 – 0,20 m artean) berreskuratu zen. Hori horrela, bataz besteko balioak mendebaldean zein zentroak handitu (desberdintasuna, I_{12} : 34,2 μm eta I_{22} : 15,4 μm) egin ziren eta ekialdean berriz txikitu (desberdintasuna, I_{32} : -31,7 μm). Hautespen balioaren aldaketa nabarmenena berriz mendebaldean atzeman zen (desberdintasuna, σ_{12} : 0,068), eta beste bi eremuetan pixka bat hobetu ziren (desberdintasuna, σ_{22} : -0,022 eta σ_{32} : -0,004).

BACKSHORE

Eremu osoan hondar higadura (0 – 0,80 m artean) eman zen azarotik Abendura bitartean, mendebaldetik ekialderantz joan ala desberdintasuna handiagoa zelarik. Bataz besteko balioa handitu (desberdintasuna, I_{13} : 12,4 μm) egin zen mendebaldean, eta beste bi eremuetan txikitu (desberdintasuna, I_{23} : -51,4 μm eta I_{33} : -70,5 μm). Hori horrela, hautespen balioa hobetu (desberdintasuna, σ_{13} : -0,052) egin zen mendebaldean eta beste bi eremuetan okertu (desberdintasuna, σ_{23} : 0,100 eta σ_{33} : 0,155).

Abendutik urtarrilera bitartean ere hondar higadura (0,20 – 0,80 m artean) eman zen eremu osoan, eta ekialdean haitzak bistaratu ziren. Higadura horrek, sedimentuaren bataz besteko balioa handiagoa (desberdintasuna, I_{13} : 12 μm , I_{23} : 33,9 μm eta I_{33} : 66,3) izatera bultzatu zuen eta hautespen balioak hobetu (desberdintasuna, σ_{13} : -0,003; σ_{23} : -0,056 eta σ_{33} : -0,189) ziren.

Urtarriletik otsailera, ekialdean 0 – 0,80 m artean metatu zen hondarra, zentroan mugimendu txikia (-0,20 – 0,20 m artean) atzeman zen eta ekialdean eremu txiki batean 0,20 – 0,40 m arteko hondar metaketa egon bazen ere, orokorrean higadura (0 – 0,20 m artean) atzeman zen; apenas zegoen hondarrik, harriak ziren nagusi. Bataz besteko balioak handitu (desberdintasuna, I_{13} : 69,8 μm , I_{23} : 10,4 μm eta I_{33} : 21,3 μm) egin ziren aurreko kanpainatik eta hautespen balioak okertu (desberdintasuna, σ_{13} : 0,073; σ_{23} : 0,021 eta σ_{33} : 0,044).

Otsailetik maiatzera, mendebaldean hondar berreskurapenik ez zen atzeman eta zentroan eta ekialdean 0,20 – 0,40 m artean metatu zen. Hori horrela, sedimentuaren bataz besteko balioa handitu (desberdintasuna, I_{23} : 33,6 μm) egin zen zentroan eta beste bi eremuetan txikitu (desberdintasuna, I_{13} : -47,7

μm eta I_{33} : -5,2 μm). Tarte horretan egoera barea izanik hautespen balioek orokorrean hobera egin zuten, ekialdean apur bat okertu zen arren (desberdintasuna, σ_{13} : -0,087; σ_{23} : -0,041 eta σ_{33} : 0,010).

SANTIAGO

Hondar lubeta eta lurerauzketa bolumenak tartekatuak izan dira hilabetez hilabete. Azarotik abendura, hondar mugimendu txikia atzeman zen beste kanpainekin alderatuta, baina orokorrean hondar mugimendu handiak atzeman dira neurketa batetik bestera. Urtarrila otsaila bitartean (otsailaren hasieran izandako denborale gogorra tarteko), kanpainaldi guztietako hondar mugimendurik handiena atzeman zen. Itsasaldi gogorraz gain, otsailaren 2ko marea biziak ura hondartzaren goialderaino iristea ahalbidetu zuten (ikus, eranskinetako argazki bilduma), ia hondartza osoan hondar higadura eman zelarik.

		HONDAR LUBETA BOLUMENA (m3)	HONDAR LURERAUZKETA BOLUMENA (m3)
1. KANPAINA 2013/11/02	2. KANPAINA 2013/12/07	527,186	6132,816
2. KANPAINA 2013/12/07	3. KANPAINA 2014/01/18	16545,536	2555,282
3. KANPAINA 2014/01/18	4. KANPAINA 2014/02/17	555,459	22308,191
4. KANPAINA 2014/02/17	5. KANPAINA 2014/05/14	16138,358	1530,110

Taula 29. Santiago hondartzako hondar bolumen diferentziak (bolumen kalkuluan, laukien tamaina 1m)

SHOREFACE

Mugimendu txikia atzeman zen azarotik abendura bitartean. Mendebaldean zein ekialdean -0,20 – 0,40 m arteko higadura eman zen eta ekialdean berriz, -0,20 – 0,20 m arteko mugimenduak atzeman ziren. Sedimentuen batz besteko tamaina eremu osoan txikitu zen, batez ere bi ertzetan (kanpaina batetik besterako desberdintasuna, S_{11} : -64,8 μm , S_{21} : -28,4 μm eta S_{31} : -58,9 μm) eta hautespen balioetan aldaketarik handiena zentroan eman zen, (kanpaina batetik bestera desberdintasuna, σ_{11} : -0,042; σ_{21} : 0,120 eta σ_{31} : 0,050).

Abendu urtarrila bitartean, hondar metaketa handia eman zen. Mendebaldean ia 3 m arteko pilaketak atzeman ziren eta zentroan zein ekialdean 2,50 metrora arte metatu zen. Metaketa horren ondorioz, mendebaldean eta zentroan batz besteko balioak handitu baziren ere, ekialdean txikitu egin zen (desberdintasuna, S_{11} : 22,8 μm , S_{21} : 3,6 μm eta S_{31} : -23,8 μm), hautespen balioak ia eremu osoan hobetu zirelarik (desberdintasuna, σ_{11} : 0,011; σ_{21} : -0,094 eta σ_{31} : -0,142).

Urtarrietik otsailera berriz, ekaitzaldi gogorak aurreko hilabetean metatutako hondarra eraman egin zuen; 2,50 m arteko hondar higadura eman zen eremu osoan. Itsasoak, tamaina fineko hondarra eraman eta lodia geratu zen hondartzan, batz besteko balioak asko handitu zirelarik (desberdintasuna, S_{11} : 68,4 μm , S_{21} : 106 μm eta S_{31} : 158,5 μm). Hautespen balioetan ere atzeman zen aldaketa, moderatuki ondo hautatuak egotetik hautespen moderatua izatera pasa baitziren zentroan eta ekialdean (desberdintasuna, σ_{11} : -0,049; σ_{21} : 0,352 eta σ_{31} : 0,438).

Otsailetik maiatzera bitarteko barealdian (tartean martxoaren hasierako denboralea), hondartzaren zentrotik mendebalderantz hondar lurerauzketa (0 – 0,60 m artean) eman zen eta ekialderantz berriz hondarra metatu (0 – 1,00 m artean) zen. Hori horrela, sedimentuaren batz besteko balioak txikitu (desberdintasuna, S_{11} : -10,7 μm , S_{21} : -95,2 μm eta S_{31} : -152,2 μm) egin ziren, zentrotik ekialderantz batez ere, hautespen balioak ere hobetu egin zirelarik eremu horietan (desberdintasuna, σ_{11} : 0,178; σ_{21} : -0,164 eta σ_{31} : -0,361).

FORESHORE

Eremu osoan eman zen hondar lurerauzketa azaro abendu bitartean. Zentroan atzeman zen higadura handiena (0,40 – 1,00 m artean), ekialdean ondoren (0,20 – 0,80 m artean) eta mendebaldean azkenik (0,20 – 0,60 m artean). Hautespen balioak asko aldatu ez baziren ere, hobetu egin ziren eremu osoan (desberdintasuna, σ_{12} : -0,032; σ_{22} : -0,077 eta σ_{32} : -0,065) eta batz besteko balioak txikitu (desberdintasuna, S_{12} : -23,2 μm , S_{22} : -14,1 μm eta S_{32} : -66,2 μm) egin ziren.

Abendu urtarrila bitartean emandako hondar lubeta batez ere, zentroan eta ekialdean atzeman zen (metaketa, 0 – 0,60 m artean) eta mendebaldean -0,40 – 0,20 m arteko gorabeherak eman ziren. Mendebaldean emandako hondar higadura horrek, bertako sedimentuaren batz besteko balioa handitu egin zuen eta beste bi eremuetan berriz aldaketa txikia atzeman zen (desberdintasuna, S_{12} : 47,4 μm , S_{22} : -5,3 μm eta S_{32} : 1,7 μm). Hautespen balioetan ia ez zen aldaketarik atzeman, (desberdintasuna, σ_{12} : 0,07; σ_{22} : -0,005 eta σ_{32} : -0,04), laginak moderatuki ondo edo ondo hautatuen artean sailkatuak zeuden.

Urtarrietik otsailera, hondar higadura nabarmena eman zen eremu osoan. Tarte horretan izandako ekaitzaldiek, zentroan eta ekialdean 1,50 m artean eraman zuten hondarra eta mendebaldean berriz metro bete artean. Batz besteko balioak txikitu egin ziren zentroan eta mendebaldean eta ekialdean berriz handitu (desberdintasuna, S_{12} : -25,2 μm , S_{22} : -6,2 μm eta S_{32} : 14,8 μm). Hautespen balioak hobetu (hautespen ona) egin ziren, itsas energia handiagoa izan zenaren seinale (desberdintasuna, σ_{12} : -0,06; σ_{22} : -0,085 eta σ_{32} : -0,017).

Hondar lurerauzketa handia eman bazen ere urtarrila otsaila artean, maiatza bitartean berreskuratu egin zen berriz ere. Mendebaldetik ekialderantz joan ala, metaketa handiagoa atzeman zen; mendebaldean 0,40 – 1,50 m artean metatu zen, eta zentroan eta ekialdean berriz, 0,60 – 2,00 m artean. Itsas energia txikiagoa izan zen, hautespen balioak okertu egin baitziren (desberdintasuna, σ_{12} : 0,221; σ_{22} : 0,267 eta σ_{32} : 0,109) eta batz besteko balioetan ere atzeman zen aldaketa (desberdintasuna, S_{12} : 19,8 μm , S_{22} : 68,8 μm eta S_{32} : -59,6 μm).

BACKSHORE

Hondartzaren eremu honetan haizearen eraginak baldintzatzen du hondarraren mugimendua. Aipatzekoa ordea, ikerketa garaian izandako itsasaldi gogorak; uneren batzuetan ura hondartzaren goialdera iritsi baizen (otsailaren 2ko itsasgoran esaterako).

Orokorrean mugimendu txikiak atzeman dira eremu honetan. Azarotik abendura bitartean, ipar-ekialdeko, hego-ekialdeko zein ekialdeko haizeak,

hondartzaren atzealdean pilatu (0 – 0,20 m artean) zuen hondarra, batez ere mendebaldean. Hori horrela, bataz besteko balioak txikitu egin ziren (desberdintasuna, S_{13} : -19,1 μm , S_{23} : -12,8 μm eta S_{33} : -28,6 μm) eta hautespen balioak okertu (desberdintasuna, σ_{13} : 0,049; σ_{23} : 0,020 eta σ_{33} : 0,021).

Abendutik urtarrilera, haize norabide aldaketak (hego, hego-ekialdea) hondarraren mugimendua aldarazi zuen. Hondarra, hondartzaren atzealdetik aurrerantz mugiaraziz (-0,20 – 0,20 m artean). Bataz besteko balioetan atzeman zen aldaketa, zentroan zein ekialdean balioak txikitu egin ziren eta mendebaldean berriz handitu (desberdintasuna, S_{13} : 81,9 μm , S_{23} : -32,2 μm eta S_{33} : -42,7 μm). Hori horrela, hautespen balioak hobetu egin ziren zentroan eta ekialdean, eta mendebaldean okertu (desberdintasuna, σ_{13} : 0,089; σ_{23} : -0,145 eta σ_{33} : -0,015).

Urtarrila otsaila bitartean, hego, hego-mendebaleko haizeak, hondarra aurrerantz eta ekialderantz (-0,20 – 0,20 m artean) mugiarazi zuen, hautespen balioa mendebaldean hobetu egin zelarik eta beste bi eremuetan okertu (desberdintasuna, σ_{13} : -0,044; σ_{23} : 0,052 eta σ_{33} : 0,144). Sedimentuen bataz besteko balioa berriz, asko handitu zen ekialdean eta beste eremuetan nabarmen txikitu zen (desberdintasuna, S_{13} : -65,6 μm , S_{23} : -22,6 μm eta S_{33} : 110 μm).

Otsailetik maiatzera, eremu osoan atzeman zen hondar metaketa (0 – 0,40 m artean). Hautespen balioak eremu osoan hobetu ziren, batez ere ekialdean (desberdintasuna, σ_{13} : -0,222; σ_{23} : -0,117 eta σ_{33} : -0,322) eta bataz besteko balioak ertzetan txikitu egin ziren (desberdintasuna, S_{13} : -55,8 μm , S_{23} : 7,3 μm eta S_{33} : -134,2 μm).

10. Ondorioak

Urteetan izan diren ekaitzaldi gogorrenetakoak egokitu izan dira zazpi hilabete iraun duen hondartzen azterketa morfotopografiko eta granulometrikoan. 2013ko azarotik hasi eta 2014ko maiatza bitartean denborale ezberdinek izandako eraginak aztertu dira bi hondartzetan. Horrez gain, denboraleen ostean hondartzek izan dute joera ere aztertu da.

ITZURUN

Herriaren mendebaldean kokatzen den eta itsas zabalera irekia dagoen hondartza honek bete-betean jasotzen ditu ipar-mendebaleko norabidean etortzen diren olatuak. Denborale gogorretan, itsasoak hondarra eramateko joera du, eremu osoan ematen delarik higadura. Ertzetan azaleratzen diren haitzak izaten dira askotan horren seinale.

Ekaitzaldien ondorengo barealdietan, hondarra pixkanaka pilatzen joaten da. Ekialdean zein zentroan hondar metaketa nahiko arin ematen da eta mendebaldean berriz, eremu hori babestuago egonik, gehiago kostatzen zaio egoera normalera iristea.

Tamaina ertaineko sedimentua nabarmentzen da hondartza osoan, jasotako laginen batz besteko balioak $246,2 - 386,5 \mu\text{m}$ artean daude (sedimentu fina - ertaina). Bestalde, hautespen balioak onak dira, laginen %20 hautespen oso ona izan dute, %64 ona eta %16 moderatuki ondo hautatua egon dira. Orokorrean, eremu mesolitoralean (foreshore) jaso dira balio onenak eta kaxkarrenak berriz, eremu infralitoralaren goi ertzean (shoreface).

SANTIAGO

Parol muturraren eta dikearen luzapenek hondartzari babesa ematen diotela begi bistakoa da, eta orokorrean ur lasaiak aurkituko ditugun arren bertako hondar mugimendua handia da.

Azterketa garaian bertako egoera tartekatuz joan da, denborale batzuetan hondarra pilatuz eta besteetan eramanez. Ekaitzaldi gogorretan (otsailekoa kasu), hondar higadura ematen bada ere, barealdian azkar berreskuratzen da galdutakoa.

Eremu supalitoraleko sedimentuaren mugimendua haizeak baldintzatzen du eta bertan mugimendu txikiak (-0,20 – 0,20 m artean) ematen dira baina eremu infralitoralaren goi ertzean (shoreface) eta mesolitoralean (foreshore) itsasoak mugimendu handiak sortarazten ditu (ia 3 metro arteko aldaketak jaso dira). Hori horrela, malda handia aurkitzen da hondartzaren goialdetik (backshore) beherantz (shoreface).

Bestalde, hondartza osoan tamaina ertaineko sedimentua nabarmentzen da, jasotako laginen batzuetan balioak 230,5 eta 475,1 μm artean daude (sedimentu fina – ertaina). Hala eta guztiz, eremu batetik bestera sedimentu tamainaren aldaketa nabaria da. Eremu infralitoralaren goi ertzean (shoreface) aurkitzen da sedimenturik finena (Mz: 285,1 μm) eta hondartzan gorantz joan ala hondarraren tamaina loditzen da (shoreface Mz: 329,7 μm eta backshore Mz: 392,6 μm).

Azkenik, hondartza honen egoera aurreikusiz, dikeak babesten duen gunera arte hondartza hazten joango dela esan daiteke, urteetan zehar, denbora gutxian asko aurreratzen ari baita. Hori horrela, ibaiaren bokalean sedimentuaren pilaketa geroz eta arinago geratutako da eta ondorioz arazo bilakatu daiteke bertako egoera.

11. Aurrekontua

	Kodea	Formula - Iturria	Ingeniaria
Urteko soldata	us	Eraik Sold 2010	27423,89
Hirurtekoa	h		0
Hirurtekoaren saria	hs	2008 Eraik Hitz. 28 art	0,05
Antzinatasuna	a	us*h*hs	0
Hitzarmen plusa	hp		2092,95
KOTIZAGARRI TOTALA	KT	us+a+hp	29516,84
Jan egunak	je		0
Jatorduaren prezioa	jp	2008 Eraik Hitz. 28 art	10
Desplazamendu egunak	de		0
Desplazamendu prezioa	dp	2008 Eraik Hitz. 28 art	49
Jatordua eta desplazamendua	jd	je*jp+de*dp	0
Segurua	se		350
TOTAL EZ KOTIZAGARRIA	TEK	jd+se	350
Kontingentzia oinarria	ko	KT	29516,84
Kontingentzia tipo	kt	2010 eskuliburua	0,236
Kontingentzia kuota	kk	ko*kt	6965,97
Istripu eta gaixotasun oinarria	igo	KT	29516,84
Istripu eta gaixotasun tipo	igt	2010 eskuliburua	0,067
Istripu eta gaixotasun	ig	igo*igt	1977,63
Fogasa oinarria	fo	KT	29516,84
Fogasa tipo	ft	2010 eskuliburua	0,063
Fogasa kotizazioa	fk	fo*ft	1859,56
SOLDATAREN KOTIZAZIOA	SK	kk+ig+fk	10803,16
KOSTE TOTALA	KoT	TK+TEK+SK	40670,00
Hitzarmen orduak	ho		1800
Hutsegite eta baimendutako egunak	hb		6
Ordu galduak	og	hb*8	48
Aparteko orduak	ao		0
Aparteko ordu konpentsatuak	aok	ao*1.75	0
LAN ORDUAK	LO	ho-og+ao-aok	1752
ORDUKO KOSTUA (€/h)	OK	KoT/LO	23,21

Taula 30. Ingeniariaren orduko kostua

	Kantitatea	Aleko prezioa	Prezio totala
Orriak (500 orriko zorroa)	1	2,50	2,50
Boligrafoa	1	1,00	1,00
Plastikozko platerrak (25 plater)	1	1,15	1,15
Plastikozko poltsa handiak (16 poltsa)	6	0,90	5,40
Plastikozko poltsa txikiak (50 poltsa)	3	0,90	2,70
Inprimatzea	1	60,00	60,00
GASTU SUNTSIKORRAK (€)			72,75

Taula 31. Proiektuaren gastu suntsikorrak

	Kantitatea	Aleko prezioa	Prezio totala
GPS+ROVER alokairua	10	185	1850,00
Ordenagailua	5%	1000	50,00
MDT alokairua hilabetea	5	90	450,00
Kalkulagailua	5%	180	9,00
Argazki kamera	5%	200	10,00
Laborategi alokairua	8	40	320,00
GASTU EZ SUNTSIKORRAK (€)			2689,00

Taula 32. Proiektuaren gastu ez suntsikorrak

	Kodea	Formula	Ingeniaria
Orduko kostua	OK	KoT/LO	23,21
Lan orduak	h		350
LANGILEAGATIKO KOSTUA	LK	OK*h	8124,72
Jatorduaren prezioa	jp		10,00
Jan egunak	je		8
Desplazamendu prezioa	dp		35,00
Desplazamendu egunak	de		18
Jatordua eta desplazamendua	jd	je*jp+de*dp	710,00
LANGILEAGATIKO KOSTU TOTALA	LKT	LK+jd	8834,72
Langile kopurua	lk		1
EKIPAMENDUAGATIKO KOSTU TOTALA	cto	LKT*lk	8834,72
GASTU SUNTSIKORRAK (€)			72,75
GASTU EZ SUNTSIKORRAK (€)			2689,00
KOSTU TOTALA (€)			11.596,47

Taula 33. Proiektuaren kostu totala

KOSTU TOTALA (€)	11.596,47
BEZ (%21)	2435,26
KOSTU TOTALA BEZ-A BARNE	14.031,72
IRABAZIA (%10)	1403,17
PROIEKTUAREN KOSTU TOTALA (€)	15.434,90

Taula 34. Proiektuaren kostu totala (bez-a eta irabaziak barne)

12. Bibliografia

- AGENCIA ESTATAL DE METEOROLOGÍA. [sarean]
<http://www.aemet.es/es/portada> [kontsulta: 2014 Abuztua]
- ARTETXE, O. *Draga bat erosteko beharra*. [sarean]
http://www.ereiten.com/blog_view.php?uuid=71&cat=0 [Kontsulta: 2014 Urtarrila]
- AZKUE IBARBIA, I. *Zumaia, izena eta izana*. Zumaia Udala. ISBN-13: 978-84-923919-4-3
- AZTERKOSTA. *Itsas ingurunea. Itsasoak eta Ozeanoak*. [sarean]
http://www.euskadi.net/contenidos/libro/carpeta_azterkosta2/eu_9368/adjuntos/azterkosta2-2.pdf [Kontsulta: 2014 Urtarrila]
- BERGARAKO UDALA. *Hondartzak*. [sarean]
http://zientzia.net/site_media/pdf/A199_O01-40_7.pdf [kontsulta: 2013 Abendua]
- CARBALLO, J. eta HILARIO, A. *Flysch Algorri Mendata. Deba eta Zumaia arteko itsasertzeko babesturiko biotopoa*. ISBN: 978-84-614-1681-3
- CARBALLO BERAZADI, J. eta MANTEROLA ISPIZUA, I. *Zumaia oroitzu*. Zumaia Udala
- ESTONBA MINTXERO, M. *Euskal Herriko kostaldea (IV): Hondartzak*. [sarean]
<http://zientzia.net/artikuluak/euskal-herriko-kostaldea-iv-hondartzak/> [Kontsulta: 2014 Abendua]
- EUSKAL METEOROLOGIA AGENTZIA. [sarean]
<http://www.euskalmet.euskadi.net/> [Kontsulta: 2014 Abuztua]
- EUSKALTZAINDIA. *Euskal Herriko ibaiak*. [sarean]
http://www.euskaltzaindia.net/dok/arauak/Araua_0166.pdf [Kontsulta: 2014 Urtarrila]

- FLOR G. y FLOR BLANCO G. *Sedimentología de los depósitos arenosos superficiales de la playa de vega (Concejo de Ribadesella, Asturias)*. Revista de la Sociedad Geológica de España 22 (1-2)
- GALARRAGA Aiestaran, A. *Algorri, iragana haitz bihurtua*. [sarean] <http://zientzia.net/artikuluak/algorri-iragana-haitz-bihurtua/> [Kontsulta: 2014 Urtarrila]
- GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK. *Ibaiak*. [sarean] http://w39ow.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DJGPortalWEB/territorio_historico_de_gipuzkoa.jsp?id=0404 [kontsulta: 2013 Abendua]
- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA. *Urolaren artoa*. [sarean] http://www4.gipuzkoa.net/oohh/web/eus/01_09.asp [Kontsulta: 2014 Urtarrila]
- HILARIO ORÚS, A. *Zumaiako flych-a gure planetaren historia ulertu eta irakasteko paraje aparta*. [sarean] http://www.ehu.es/ikastorratza/9_alea/flysch5.pdf [kontsulta: 2013 Azaroa]
- LOPETEGI GALARRAGA, A. *Caracterización granulométrica de depósitos litorales actuales en Gipuzkoa: Hondarribia-Getaria*. CKQ Escuela de Cuaternario. ISSN 2174-3703
- LUR HIZTEGI ENTZIKLOPEDIKOA. *Euskal Herri inguruko itsasoaren geografía*. [sarean] http://www.euskara.euskadi.net/r59luredir/es/contenidos/articulo/co407/eu_d0407001/0407001.html [kontsulta: 2013 Azaroa]
- MEDIANA, R., LOSADA, I., LOSADA M.A. y VIDAL, C. *Variabilidad de los perfiles de playa: forma y distribución granulométrica*. Universidad de Cantabria
- ODRIOZOLA OYARBIDE, L. *Zumaia Historia*. Zumaiako Udala. ISBN: 84-923919-1-X
- PARDO PASCUAL, J.E., PALOMAR VAZQUEZ, J.M. Y GARCÍA ASENJO, L. *Determinación de la tendencia evolutiva de un segmento de playa basándose en múltiples levantamientos tridimensionales*. Actas de las VI Jornada de Geomorfología Litoral, Tarragona 2011
- PEREZ, F.P. *Euskadiko Hondartzak*. ADVE. ISBN: 9325-46-2-2

- Red de Vigilancia de la Calidad de las Aguas y del Estado Ambiental de los Rios de la CAPV, 2001. *Unidad hidrológica: Urola*. [sarean]
http://www.uragentzia.euskadi.net/u81-0003/eu/contenidos/informe_estudio/red_estado_ambiental_rios/eu_red_agua/djuntos/urola.pdf [Kontsulta: 2014 Otsaila]
- SANJAUME SAUMELL, E. *Las costas valencianas, sedimentología y geomorfología*. Valencia: Universitat de València, Sección de Geografía, 1985.

ERANSKINAK:

A. ERPINEN AZALPEN ORRIAK

B. TXOSTEN METEOROLOGIKOAK

C. PLANOAK

D. ARGAZKI BILDUMA

A. ERPINEN AZALPEN ORRIAK:

- ❖ Itzurun hondartzako erpina
- ❖ Santiago hondartzako erpina

ERPINA

Zenbakia: 98

Izena: D.G. COSTAS
RED LOCAL M.M.A.



Behaketa eguna: 2014/01/17

Kalkulu eguna: 2014/01/20

Kokapena: Hondartzaren goialdean aurkitzen da, San Telmo aldea eta erdigunearen arteko lur-muturrean. Hondar-Gain etxebide kaletik irits daiteke lur-mutur horretara hain zuzen.

ERREFERENTZIA-SISTEMA ETRS89

UTM30 KOORDENATUAK

x: 559971.107 m

y: 4794347.039 m

Kota: 40.833 m

Eskala faktorea:
0.99964424

Konbergentzia:
0.5634 gon

KOORDENATU GEODESIKOAK

Longitueda:
-2° 15' 38.27820''

Latitueda:
43° 17' 58.42770''

Altura elipsoidala:
89.449 m

KOORD. CARTESIAR GEOZENTRIKOAK

X: 4645639.496 m

Y: -183391.138 m

Z: 4351843.238 m



ERPINA

Zenbakia: 01

Izena: Santiago basea



Behaketa eguna: 2014/01/17

Kalkulu eguna: 2014/01/20

Kokapena: Zumaiatik Getaria bitarteko errepidean (N-634) aurkitzen den tunelaren atzealdean aurkitzen da.

ERREFERENTZIA-SISTEMA ETRS89

UTM30 KOORDENATUAK

x: 561185.509 m

y: 4794616.361 m

Kota: 9.229 m

Eskala faktorea:
0.99964605

Konbergentzia:
0.5749 gon

KOORDENATU GEODESIKOAK

Longitueda:
-2° 14' 44.27552''

Latitueda:
43° 18' 6.80553''

Altura elipsoidala:
57.814 m

KOORD. CARTESIAN GEOZENTRIKOAK

X: 4645487.162 m

Y: -182166.996 m

Z: 4352009.705 m




B. TXOSTEN METEOROLOGIKOAK:


- ❖ **Azaroa 2013**
- ❖ **Abendua 2013**
- ❖ **Urtarrila 2014**
- ❖ **Otsaila 2014**
- ❖ **Martxoa 2014**
- ❖ **Apirila 2014**
- ❖ **Maiatza 2014**

Euskalmet (euskal meteorologia agentzia) web orritik eskuratu dira datuak. Prezipitazio eta haizearen datuak Zarautzeko behatokia jasotakoak dira eta olatuen informazioa Pasaian.


AZAROA 2013




Grafikoa E1. Prezipitazioa Zarautzen (Azaroa 2013)




Grafikoa E2. Haizea Zarautzen (Azaroa 2013)



Grafikoa E3. Olatuen jokabidea (Azaroa 2013)




Grafikoa E4. Olatuen altuera (Azaroa 2013)



Grafikoa E5. Haizearen norabidea (Azaroa 2013)


ABENDUA 2013

PREZIPITAZIOA (l/m²)




Grafikoa E6. Prezipitazioa Zarautzen (Abendua 2013)

HAIZEA (km/h)




Grafikoa E7. Haizea Zarautzen (Abendua 2013)

OLATUEN JOKABIDEA




Grafikoa E8. Olatuen jokabidea (Abendua 2013)

OLATUA (m)



Grafikoa E9. Olatuen altuera (Abendua 2013)


HAIZEAREN NORABIDEA



Grafikoa E10. Haizearen norabidea (Abendua 2013)


URTARRILA 2014

PREZIPITAZIOA (l/m2)




Grafikoa E11. Prezipitazioa Zarautzen (Urtarrila 2014)

HAIZEA (km/h)




Grafikoa E12. Haizea Zarautzen (Urtarrila 2014)

OLATUA (m)




Grafikoa E13. Olatuen jokabidea (Urtarrila 2014)



Grafikoa E14. Olatuen altuera (Urtarrila 2014)


HAIZEAREN NORABIDEA



Grafikoa E15. Haizearen norabidea (Urtarrila 2014)


OTSAILA 2014

PREZIPITAZIOA (l/m2)




Grafikoa E16. Prezipitazioa Zarautzen (Otsaila 2014)

HAIZEA (km/h)




Grafikoa E17. Haizea Zarautzen (Otsaila 2014)

OLATUEN JOKABIDEA




Grafikoa E18. Olatuen jokabidea (Otsaila 2014)

OLATUA (m)



Grafikoa E19. Olatuen altuera (Otsaila 2014)


HAIZEAREN NORABIDEA



Grafikoa E20. Haizearen norabidea (Otsaila 2014)


MARTXOA 2014

PREZIPITAZIOA (l/m2)




Grafikoa E21. Prezipitazioa Zarautzen (Martxoa 2014)

HAIZEA (km/h)




Grafikoa E22. Haizea Zarautzen (Martxoa 2014)

OLATUEN JOKABIDEA




Grafikoa E23. Olatuen jokabidea (Martxoa 2014)

OLATUA (m)



Grafikoa E24. Olatuen altuera (Martxoa 2014)


HAIZEAREN NORABIDEA



Grafikoa E25. Haizearen norabidea (Martxoa 2014)


APIRILA 2014

PREZIPITAZIOA (l/m²)




Grafikoa E26. Prezipitazioa Zarautzen (Apirila 2014)

HAIZEA (km/h)




Grafikoa E27. Haizea Zarautzen (Apirila 2014)

OLATUEN JOKABIDEA




Grafikoa E28. Olatuen jokabidea (Apirila 2014)

OLATUA (m)



Grafikoa E29. Olatuen altuera (Apirila 2014)


HAIZEAREN NORABIDEA



Grafikoa E30. Haizearen norabidea (Apirila 2014)


MAIATZA 2014

PREZIPITAZIOA (l/m2)





Grafikoa E31. Prezipitazioa Zarautzen (Maiatza 2014)

HAIZEA (km/h)




Grafikoa E32. Haizea Zarautzen (Maiatza 2014)

OLATUA (m)



Grafikoa E34. Olatuen altuera (Maiatza 2014)

HAIZEAREN NORABIDEA



Grafikoa E35. Haizearen norabidea (Maiatza 2014)

Grafikoa E33. Olatuen jokabidea (Maiatza 2014)

C. PLANOAK:

- ❖ **01 Itzurun hondartzako bolumen diferentzien kotak**
[2013/11/01 - 2013/12/08]

- ❖ **02 Itzurun hondartzako bolumen diferentziak**
[2013/11/01 - 2013/12/08]

- ❖ **03 Santiago hondartzako bolumen diferentzien kotak**
[2013/11/02 - 2013/12/07]

- ❖ **04 Santiago hondartzako bolumen diferentziak**
[2013/11/02 - 2013/12/07]

- ❖ **05 Itzurun hondartzako bolumen diferentzien kotak**
[2013/12/08 - 2014/01/17]

- ❖ **06 Itzurun hondartzako bolumen diferentziak**
[2013/12/08 - 2014/01/17]

- ❖ **07 Santiago hondartzako bolumen diferentzien kotak**
[2013/12/07 - 2014/01/18]

- ❖ **08 Santiago hondartzako bolumen diferentziak**
[2013/12/07 - 2014/01/18]

- ❖ **09 Itzurun hondartzako bolumen diferentzien kotak**
[2014/01/17 - 2014/02/16]

- ❖ **10 Itzurun hondartzako bolumen diferentziak**
[2014/01/17 - 2014/02/16]

- ❖ **11 Santiago hondartzako bolumen diferentzien kotak**
[2014/01/18 - 2014/02/17]

- ❖ **12 Santiago hondartzako bolumen diferentziak**
[2014/01/18 - 2014/02/17]

- ❖ **13 Itzurun hondartzako bolumen diferentzien kotak**
[2014/02/16 - 2014/05/15]

- ❖ **14 Itzurun hondartzako bolumen diferentziak**
[2014/02/16 - 2014/05/15]

- ❖ **15 Santiago hondartzako bolumen diferentzien kotak**
[2014/02/17 - 2014/05/14]

- ❖ **16 Santiago hondartzako bolumen diferentziak**
[2014/02/17 - 2014/05/14]

- ❖ **17 Santiago hondartzako luzetarako profil sinpleak (Mendebaldea)**
- ❖ **18 Santiago hondartzako luzetarako profil sinpleak (Zentroa)**
- ❖ **19 Santiago hondartzako luzetarako profil sinpleak (Ekialdea)**
- ❖ **20 Itzurun hondartzako luzetarako profil sinpleak (Mendebaldea)**
- ❖ **21 Itzurun hondartzako luzetarako profil sinpleak (Zentroa)**
- ❖ **22 Itzurun hondartzako luzetarako profil sinpleak (Ekialdea)**

PLANOAK APARTEKO KARPETAN DAUDE

D. ARGAZKI BILDUMA:



Irudia E1. Itzurun hondartza




Irudia E2. Itzurun hondartza [2013/09/13]



Irudia E3. Itzurun hondartzaren mendebaldea [2013/12/06]



Irudia E4. Itzurun hondartzaren ekialdea [2014/01/03]



Irudia E5. Itzurun hondartzaren ekialdea [2014/01/03]



Irudia E6. Itzurun hondartzaren zentroa [2014/01/03]



Irudia E7. Itzurun hondartza mendebalde [2013-01-03]





Irudia E8. Itzurun hondartza [2014/01/05]



Irudia E9. Itzurun hondartza [2014/01/10]



Irudia E10. Itzurun hondartza [2014/02/01]



Irudia E11. Itzurun hondartza [2014/01/10]





Irudia E12. Itzurun hondartzaren mendebaldea [2014/02/01]



Irudia E13. Itzurun hondartza [2014/02/02]



Irudia E14. Itzurun hondartza [2014/02/02]



Irudia E15. Itzurun hondartza [2014/02/08]

*Irudia E16. Itzurun hondartza;
denboralearen ondorioak [2014/02/08]*





Irudia E17. Itzurun hondartzaren mendebaldea [2014/02/15]





Irudia E18. Itzurun hondartza, mendebaldeko itsaslabarrak. Baleike aldizkaria [2014/03/03]



Irudia E19. Itzurun hondartza. Baleike aldizkaria [2014/03/03]



Irudia E20. Itzurun hondartza [2014/03/06]



Irudia E21. Itzurun hondartzaren zentroa [2014/03/06]



Irudia E22. Itzurun hondartzaren ekialdea [2014/05/16]



Irudia E23. Itzurun hondartza [2014/05/16]



Irudia E13. Itzurun hondartza [2014/02/02]

Irudia E14. Itzurun hondartza [2014/02/02]

Irudia E24. Itzurun hondartzaren mendebaldea [2014/05/16]



Irudia E25. Santiago hondartza eta Urola ibaiaren bokala [2014/01/10]



Irudia E26. Santiago hondartza [2013/01/17]



Irudia E27. Santiago hondartza [2014/03/13]



*Irudia E28. Santiago hondartzatik aterata, N-634 errepidea.
Baleike aldizkaria [2014/01/08]*



*Irudia E29. Santiago hondartzatik aterata, itsaso zakarra. Baleike
aldizkaria [2014/01/08]*



*Irudia E30. Santiago hondartzaren mendebaldea.
Baleike aldizkaria [2014/01/08]*



Irudia E31. Kai-muturra. Baleike aldizkaria [2014/01/08]



Irudia E32. Kai-muturra. Baleike aldizkaria [2014/01/08]



Irudia E33. Kai-muturra [2014/02/02]





Irudia E34. Santiago hondartzatik aterata, N-634 errepidea. Baleike aldizkaria [2014/03/03]



Irudia E35. Santiago hondartza. Baleike aldizkaria [2014/03/03]



Irudia E36. Kai-muturra. Baleike aldizkaria [2014/01/28]



Irudia E37. Kai-muturra. Baleike aldizkaria [2014/03/03]



Irudia E38. Kai-muturra. Baleike aldizkaria [2014/01/28]



Irudia E39. Kai-muturra. Baleike aldizkaria [2014/01/28]



Irudia E40. Kai-muturra. Baleike aldizkaria [2014/03/03]



Irudia E41. Dikea. Baleike aldizkaria [2014/01/28]




Irudia E42. Urola ibaia [2014/03/03]



Irudia E43. Santiago hondartza [2014/03/13]



Irudia E44. Santiago hondartzaren goialdean sortutako putzua denboralearen ondorioz [2014/02/02]



Irudia E45. Santiago hondartzaren goialdean sortutako putzua denboralearen ondorioz [2014/02/02]



Irudia E46. Urola ibaiaren alboko pasealekuan sortutako kalteak [2014/02/02]



Irudia E47. Itsasoak ekarritako hondakinak [2014/02/02]



Irudia E48. Kai-muturrean sortutako kalteak [2014/01/10]



Irudia E49. Kai-muturrean sortutako kaltea [2014/02/02]



Irudia E50. Garabia uretara erorita [2014/02/02]



Irudia E51. Kai-muturrean sortutako kaltea [2014/01/10]



Irudia E52. Santiago hondartza [2014/05/16]



Irudia E53. Kai-muturrak [2014/05/16]



Irudia E54. Santiago hondartzan sortutako malda [2014/05/16]